

ORIOKO ETA AIAKO ALDIZKARIA-2021-OTSAILAREN 5A-425.ZENBAKIA

KARKARA



**KORRIKA, INOIZ BAINO
BIZIAGO**

PUBLIZITATEA



Bidaiatu eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

22, 26, 28, 49, 55 eta 60 eserleku dituzten literadun autobusak ditugu.

Ubegun industria gunea, 4 AIA-ORIO
 943-13 28 93 · 656 78 29 99 (Gabino)
 Fax-a: 943-89 05 62
 alustiza@autocaresalustiza.com



Olaskoegia z/g
 AIA-ORIO
 943-13 04 38

ANORGA TXIKI, S.L.
KRISTALDEGIA

Oria etorbidea, 4
 LASARTE-ORIA

anorgatxiki@gmail.com
 www.cristaleriaanorgatxiki.com
 943-37 17 33 · 610 45 93 45

- Eraikin komertzialak
- Kristaldura bikoitza
- Segurtasun beirak
- Dutzako manparak eta ispiluak



Lurretik
Garbiketak
 SERVICIO INTEGRAL DE LIMPIEZA

- Garbiketa orokorrak
- Etxebizitza eta bulegoak
- Obra amaierak
- Garaje eta ganbarak
- Mantenua
- Ostalaritza
- Apartamentu turistikoak

LURRETIK Garbiketak.
 Santio erreka 41, Aia-Orio
 636 18 82 92 (Vicky) / info@lurretik.es

edaritegia **Antilla** *jateetxea*

Abeslari kalea, 2
 ORIO
 943-83 23 09

- Menuak
- Plater konbinatuak
- Errazioak
- Ogitarztekoak

Pelotari, 5 · ORIO
 943-83 00 34
 autolan13@hotmail.com

AUTO - LAN C. B.



arkaitz taberna
 ••••• uio •••••

- EGUNEKO MENUA
- OGITARTEKOAK
- PINTXOAK
- PLATER KONBINATUAK
- KARTA

Terraza ederrenekin giro ezin hobea

abeslari kalea 6 - 943-83 16 57



Zerbitzu teknikoak
 24 ordu

fontana
iturgintza
 iturgintza · gasa · berogailuak

- Komun eta sukaldeen erreforma
- Galdara eta termo elektrikoaren instalazioa
- Ur-jarioak aurkitu eta konpondu
- Bainujontzia kendu eta dubxa jartzea
- Zoru erradiatzailea

Arrantzale kalea, 3 · ORIO
 fontana-jul@hotmail.es
 www.fontaneria-fontana.com
 943-53 98 88 · 661 26 28 28



Ubegun industrialdea, 7 AIA-ORIO
 943-83 51 86

BODEGAS *Gailur*

01307 BANCOS de EBRO
 Tel./Fax: 943 40 91 58
 www.bodegagailur.com
 Arabar Errioxa

ZUDUGARAI



Gabriel's Tradición
 RESTAURACIÓN DE ORIGEN

Tel.: 943-83 03 86 · Fax-e: 943-83 59 52
 txakolizudugarai@euskalnet.net www.txakolizudugarai.com



KARKARA 425

2021-OTSAILAREN 5A
AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
ARNAITZ RUBIO APREA

Aurkibidea

- 5 **Iritzia** Aiora Larrañaga Solaberrieta
Oriotarra
- 6 **Hitz tantak** Iñigo Gaiton
Mikel Agote
- 8 **Izpiak eta hizkiak** Luis Lizarralde
Elurra Pagoetan
- 10 **Gutunak**
- 12 **Oroimenaren kutxa** Iñaki Iturain
Julian Wilson, Kontxako 'baineru' oriotarra
- 17 **Herrian galdezka**
- 18 **Erreportajea** Iñigo Gaiton eta Aiora Larrañaga Solaberrieta
Urratsez urrats aurrera
- 28 **Erreportajea** Karkara eta Orioko udal taldeak
Dikeko proiektu berria hizpide
- 32 **Ikasleak idazle** Zaragueta Herri Eskola
- 33 **Moila bazterretik** Eli Huegun
Ederrak garaiak bizirik egoteko
- 34 **Akuilua hartuta** Joseba Brit
Amor Fati
- 35 **Nire honetan** Iñigo Gaiton
Handien bazka
- 36 **Bazkidetza**
- 37 **Osasuna** Amaia Arteaga
Igeriketa: errespetua bai, beldurrik ez
- 39 **Euskara** Jabier Zabaleta
Txalo Arkuperi!
- 40 **Albiste laburrak**
- 42 **Plazan bazan**
- 44 **Zerbitzuak**
- 45 **Agenda**
- 46 **Hasi bertsotan** Aritz Lizaso

KARKARA



TOKIKOM

Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.

Soreasu 1. 20730

AZPEITIA

943-83 15 27

karkara@karkara.eus

www.karkara.eus

Lehendakaria

Rikardo Uzkudun

Erredaktoreburua

Aiora Larrañaga
Solaberrieta

Erredaktore taldea

Onintza Aiestaran

Onintza Lete Arrieta

Elizabete Manterola

Iñigo Gaiton

Rikardo Uzkudun

Diseinu arduraduna

Ane Azkue

Publizitatea

Leire Martija

Zenbaki honetako

kolaboratzaileak

Luis Lizarralde

Iñaki Iturain

Eli Huegun

Joseba Brit

Amaia Arteaga

Jabier Zabaleta

Banatzaileak

Endika Ruiz (Orijo)

Manex Dorronsoro (Orijo)

Eli Irureta (Aia)

Inprimategia

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)

Lege Gordailua:

SS-346/90


ISSN: 1132-1105

Tirada: 3.450 ale



PUBLIZITATEA

Carmen eta Txomin
ARRAINDEGIAK



TXOMIN ARRAINDEGIA
Eusko Gudarien kalea, 44
943-83 27 47

CARMEN ARRAINDEGIA
Arizaga kalea
943-83 05 37

Gabon
TABERNA

Eusko Gudarien kalea, 7
943-83 06 09

IGLESIAS
SARRAILAGILEAK



iglesiascerrajeros@yahoo.es
www.iglesiascerrajeros.com
Erribera kalea, 14 · ORIO
637 72 33 08

24orduko zerbitzua

- Ateak irekitzen ditugu
- Sarraila-zilindro aldaketak
- Ateak ixteko malgukien aldaketa
- Komunitateentzako zerbitzua

GARMENDIA

Higiezin Agentzia
Aholkularitza
Aseguruak

943-83 44 66 · 688 75 59 48
Ibai Ondo, 1 · ORIO
info@egarmendia.com

Joseba
AROTEGIA · CARPINTERIA



687 683 427
josebaarotza@gmail.com

ATEAK
ZOKALOAK
ARMAIRUAK NEURRIRA
LEIHOAK
ESKAILERAK
AROTEGIA OROKORREAN

ITZIAR
KIROLAK

Eusko Gudarien kalea, 23
ORIO
943-83 31 03

KAÏOA



kaioa_denda
www.kaioa.es

Kolon Txiki
edaritegia · jatetxea

Herriko Enparantza 4
ORIO
Tel.: 943-83 00 44

PIZZERIA
KALETA

%100 etxean egina

Arrantza kalea, 10 943-24 89 46

K·U·K·U·A·R·R·I
ELEKTRIZITATEA

943-10 01 81 · 640 28 13 08
Zigordia, 52 behea C · ZARAUZ
kukuarri@kukuarri.com

INDO

TRANSPORTES FRIGORIFICOS

Garraio frigorifikoa
Nazionala eta Nazioartekoa

generoa




garraioak

Ubegun industriagunea, 4
AIA-ORIO
943-89 4024 · FAX-a: 943-13 01 44

kamarak



ibilbideak

Oriotarra



AIORA LARRAÑAGA SOLABERRIETA

Gaztetan askok amestu izan dugu mundua ezagutzearekin eta hiri handi batean bizitzearekin. Ezezagunak erakartzen gaitu, eta herri txiki batean jaio eta hazi bagara, hiriburuak aukerez betetako guneak iruditzen zaizkigu gainera. Nik ere horrela pentsatzen nuen gaztea nintzenean, baina denbora pasata ohartu naiz ez dagoela norberaren jaioterria bezalakorik.

Horren inguruan hausnartzen aritu nintzen pasa den astean, Orioko liburutegiko Apal Moreko *Hija del camino* liburua irakurtzen ari nintzen bitartean. Lucia Asue Mbomio Rubio idazleak aita afrikarra eta ama espainiarra duen neska baten istorioa hartzen du ardatz eleberrian, eta Euskal Herrian bizi diren haur eta gazte asko bezala, nobelako protagonista ere bi munduren artean sentitzen dela dio: Espainian dagoenean, gehienentzat afrikarra delako –lehen aldiz aitaren jaioterrira 30 urterekin joan bazen ere– eta Ekuatore Ginean, berriz, zuria deitzen diotelako. Dena utzi eta Europako hiri handi batera bizitzera joan zenean, ordea, ohartu zen herritartasunetik harago, baditugula etxean sentiarazten gaituzten lotura eta harremanak.

Gure 3 urteko semearekin hitz egiten dudanean ohartzen naiz ni horretaz; hura ere bi kulturen artean bizi bada ere, bere mundu ikuskera oso oriotarra da. Haur eta gaztetan bizitako testuinguruak, bizipenek, oroitzapenek eta tokian tokiko balioek gure izaera markatzen dutela diote adituek eta betirako barruan gordetzen ditugula non nahi gaudela ere. Imajinatzen dut hori geratuko zaiola gure semeari. Igeriketa ikastaroetan hasi nahi izan du udan moilatik erriora salto egitea amesten duelako, eta baporea eduki nahi omen du handia denean arrantzara eta itsasoan baleak ikustera joateko. Erriorearen bueltan dago bere mundu txikia. Horrek ez du esan nahi Senegalgo kultura ahazten duenik; oso presente du beti. Badaki aitona-amonak, osaba-izebak eta lehengusuak Senegalen dituela zain, baina bere mundu ikuskeran bi kulturak guztiz osagarriak dira, bata bestearen jarraipena. Kanean senegaldarrekin edo beste jatorriren bateko musulmanekin topatzen denean ere, *A salam aylekum* esaten die, baina "Kaixo! zer moduz habil?" esango lukeen jarrera eta tonu berberarekin.

Ez da kasualitatea gure semea horrelakoa izatea, oraingoz, askatasunez eraikitzen ari delako bere identitatea, kultura bateko eta besteko ezaugarriak eta balioak uztartuz. Agian, nagusiagoa denean, aurreiritziz betetako gizartearekin talka egingo du eta hainbat oztopo gaingitu beharko ditu; nongoa edo zein herrialdetakoa den ere galdetuko diote askotan, baina izango du erantzuna: "Ni oriotarra naiz". ■■■

**DENBORA PASATA
OHARTU NAIZ EZ
DAGOELA NORBERAREN
JAIOTERRIA
BEZALAKORIK**

Mikel Agote

TESTUA ETA ARGAZKIA: IÑIGO GAITON

Mikel Agote bere negozioa irekitzea erabaki zuen duela lauzpabost urte, Johnny Cabianca bazkide brasildarrarekin batera. Nazioartean inoiz baino surf taula gehiago saldu da 2020an, izurriteak ekonomia globalari kolpea eman arren, eta hari mutur horri tiraka hasi du elkarrizketa.

Nola moldatu zarete azken hilabeteotan?

Osasun krisiaren aurkako neurrien ondorioz, jendeak [aire libreko] kirolari gehiago heldu dio azkenaldian. Kostaldeko jende askok surfa probatzeko aprobetxatu du iazko urtea; uretan gutxi ibiltzen zirenak ere maizago azaldu dira hondartzara, eta surfa utzita zuen jendea ere itzuli egin da olatu artera. Horrez gain, bidaiatzeko aukera gutxiago izan denez, kirolerako materialean diru gehiago gastatu da orokorrean, eta hori guk antzeman dugu.

Dena den, bada beste faktore bat: Asia. Han esku-lana merkea denez, surfeko material asko produzitzen da, eta izurriteak itxi egin du enpresek Asiarekin zuten hartu-eman hori. Horregatik, logikoa da Europako, Amerikako edo Australiako surf taula fabriketan eskari gehiago izatea.

Kirolari lotutako beste sektore batzuetan ere antzeko fenomeno gertatu da.

Bai. Jakin dudanez, mendiko bizikleten stock-a ere bukatu egin zen iaz, izurritea hasi eta hilabete gutxira.

Zer nolako eragina du Asiak surf industrian?

Handia. Atera kalkuluak: kortxozko surf taulak, hondartzatan gero eta gehiago ikusten diren horiek, Asian eginak dira denak. Eta, hori, adibide bat baino ez da.

Gure sektorean Asiak min ikaragarria egiten die hemengo tailer eta fabrika txikiei, oso argi daukat. Asiari bizkarra emango bagenio, eta dena hemen produzitzen hasi, surf sektorean lanpostu asko egongo lirateke.

Zuen kasuan, nazioartean ere lan asko egiten duzue.

Pandemiak mugatu al du merkatu hori?

Ez. Zorionez, izurriteak ez digu galarazi guk egindako taulak munduko txoko desberdinetara bidaltzen jarraitzea.

Izurriteak lagundu al du hemengo produktua, bertakoa, balioan jartzen?

Teorikoki hala beharko luke, baina ez dakit beste sektoreetako zenbakiak zer dioten horren gainean. Surfaren kasuan, duda egiten dut. Surfa kirol gaztea da oraindik hemen, kultura aldetik nahikoa pobrea, eta ez dakit zenbateraino baloratzen duen jendeak taula bakoitzaren atzean dagoen lana.

Bosgarren urtea betetzera doa zuen enpresa. Zer puntutan harrapatu zaituzte COVID-19ak sortutako osasun krisiak?

2016ko udan ireki genituen ateak, eta negozioa egonkortze bidean zela harrapatu gintuen pandemiak. Martxoan beldurra sentitu nuen ziurgabetasun ikaragarri haren ondorioz, baina zorionez, lan asko egin dugu urtean zehar.

Zuen negozioa zabaldukoan, esku-lanean aritze hutsetik bulegoan ere lan egitera pasa zinen, enpresaren inguruko erabakiak hartzeko. Zer ikasi duzu?

Enpatia handiagoa dut orain negozio propioak dituztenekiko. Ikaragarria iruditzen zait, adibidez, ostalaritza sektorean gertatzen ari dena. Oso gogorra izan behar du ateak ixtera behartuta goteak, behin eta berriro.

Eta zer lezio atera diozu izurriteari?

Enpresa batek moldatzeko eta aldatzeko prest egin behar duela uneoro. Hemendik aurrera, are gehiago.

Negozioa gobernatzeak uzten al dizu olatu artean orduak egiten?

Duela urte batzuk baino gutxiago sartzen naiz uretara, baina inoiz baino surflari zoriontsuagoa naiz. Lehen baino gutxiago eskatzen diot surfari, eta ikaragarri ematen dit bueltan, gutxirekin konformatzen ikasi dut. Hala ere, oraindik gustatzen zait olatu on, borobil eta, tarteka, handi samarrak hartzea kar-kar-kar... ■■■



Elurra Pagoetan

ARGAZKIA ETA TESTUA: LUIS LIZARRALDE

Errege egunean ateratakoa da argazkia. Mendira joaten naizenean argazkiak egiteko kamera soinean izaten dut, eta argazki bereziren bat egiten saiatzea gustatzen zait. Kasu honetan, zuhaitza begiz jota nuen lehendik, eta lagunekin Pagoeta aldera nindoala, bidetik atera eta propio hurreratu nintzen haraino. Zeruak, lur elurtuak eta zuhaitzak egiten zuten efektuak arreta eman zidan, eta fotoa egin nuen. Pena bakarra geratu zait: zuhaitzaren inguruan elurrik ez izatea, mara-mara zerutik erortzen. Argazkiak kontraste polita zuenez, zuri-beltzera pasa nuen edizio programarekin, eta hau da emaitza; edonora joanda ere, beti inguruko txokoei begira ibiltzearen emaitza. ■■■





Herriko plaza

JOSEBA ORZAIZ GENOVA

Hirigintza zinegotzi agurgarria: Goiko Kaleko bizilagun bat naiz, eta egun hauetan Orioko bizilagunek ikus dezakegu gure herriko Plaza nola aldatzen eta eraldatzen ari den. Izan ere, badirudi amaitzera doala. Aldaketa handia eta oinezkoentzat ere oso eroso dirudi. Alde batetik, pentsatzen dut aldaketa hau inbertsio handia izan dela Udalarentzat. (Zergadun guztiok ordaindu dugu). Bestalde, xehetasunei erreparatu beharko geniekeela uste dut. Arreta jartzen badugu, Platanondo izeneko zuhaitzak landatu dituzte Herriko Plazan.

Zuhaitz hauek, epe motzera, honako ondorioak ekar ditzakete: lehenik, bere sustraiek espaloia eta zoladura altxatzen dute, eta beraz, mugikortasun urriko pertsonentzat oztopo bat izan daiteke. Bigarrenik, Platanondo zuhaitzaren haziak espaloietako zintarrietan zehar pilatzen dira, eta euri-urak husteko saretak estaltzen dituzte.

Gutun honen bidez, nahi nuke Udalak edo arduradunak gogoeta egitea, eta gure inguruko zuhaitz autoktono bat bilatzeko aukera baloratzea. Beste aukera batzuk ere baditugu: zuhaitz dotoreagoak landatzea, adibidez; haritzak, pagoak, edo magnoliak. Alamo espezieak edo Ezki zuhaitzak. Honako hauek hirigintza teknikariek aholkatzen dituzte



Orioko Herriko Plaza. KARKARA

landatzeko hiriguneetan (arquitecturayempresa.es).

Nik uste dut halako inbertsioa egin eta gero zuhaitz dotoreagoak herriko plazak merezi dituela.

Besterik gabe, eskabidea aintzat hartuko duzuelakoan. Agur bero bat.

Ez da onargarria, goazen salatzer!

ORIOKO ERRAUSKETAREN AURKAKO HERRI MUGIMENDUA, HERRIO NATUR TALDEA ETA TALAI MENDI ELKARTEA

Mundu osoko arazo larrietako baten inguruan ari gara: hondakinen kudeaketaz. Gipuzkoan bereziki azken urteetan behin eta berriz mahai gainean izan den gaia. Zubietako erraustegia Europako sistemarik aurreratuenetarikoa bat dela esanez dabilta hainbat politikari. Are gehiago, erraustegien artean eredugarria dela. Gauza batzuk ez dizkigute

esan ordea. Munduko toki askotan irtenbide desegokia izateagatik erraustegiak bertan behera uzten ari dira. Argentinan, Australian, Irlandan, Italian 12. Nafarroan, Valentzian eta Madrilen ere bai (Valdemingomez, 2020an eraikia, 2025ean itxiko dute). Modernitatearen gaiarekin jarraituz, erraustegiak frogaldi-epean sortutako kutsadura, agindutako mailaren gainetik egon da, zehatz mehatz partikula kontrolarekin eta nitrogeno oxidoarekin izandako arazoengatik. 2019ko ekainean proban jarri zutenetik, lau istripu inportante izan ditu Zubietako erraustegiak. Ekainean, transformadorean bi ezbehar izan zituzten eta irailean berriz ere arazoak eman zituen transformadoreak. Bestalde, GuraSOS plataformak salatu izan du labea homologatu gabe ari direla probak egiten Zubietan. Iazko maiatzean, erraustegitik amoniakoa isuri zuten Arkaitz-errekara, eta ikerketa zabalik da, delitu ekologikoa leporatuta. Honekin batera esan behar da erraustegi honetan

MUNDUKO TOKI ASKOTAN ERRAUSTEGIAK BERTAN BEHERA UZTEN ARI DIRA

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). KARKARAK eskubidea du gutuna laburtzeko. KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta pertsona horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio.

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARARA bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.eus edo erredakziora eskura ekarri -Orioko edo Alako Kultur Etxean- edo postaz bidali. Kultur etxea, 20810 Orio

substantziarik kutsakorrenak modu jarraian neurtzen ez direnez, inguruko lurrak eta elikagaiak etengabe kutsatzen ari direla, Orioko lurrak eta Oriabaia tarteko.

Bitartean, Gipuzkoako ahalduen nagusia eta Ingurumen eta Obra Hidraulikoetako diputatua, Gipuzkoan lortutako birziklatze-tasarengatik harro agertu ziren non PNVk eta PSEk agintzen duten udaletan batez besteko birziklatze-tasarik apalenak dituzten. Donostia da Gipuzkoan urteko errefus gehien sortzen duen hiria, pertsonako 240 kilo inguru, Gipuzkoako %25. Aia ere ez da atzera geratzen. Oriok urteko 170 kilo errefus pertsonako sortzen ditu gutxi gorabehera. Usurbil edo Arrasaten 80 kilo inguru sortzen dituztelarik.

Instituzioetatik errekotako bizia hilda azalduta ere, informazio garbirik iristen ez zaigun une honetan, Orioko, Urola Kostako eta Gipuzkoako botere guneetan zabiltzaten agintariei, antzerkiak, atzera pausoak, patrika betetzeak eta arduragabekeriak utzi eta gure ingurugiro osasuntsua lehenesteko eskatzen dizuegu. Bizi dugun klima egoera larriari begira lotsagarria baita zuen arduragabekeria.

Gipuzkoan urteak goaz zabor kudeaketan gainean esperimentatzen eta ez da onargarria hiru aldameneko herriek hain emaitza ezberdinak izatea.

Hau salatzeko, agintariei beraien jokoan aurrean tinko gaudela erakusteko eta Larreko mahaia herrietan klima aldaketaren aurkako ekintzak antolatu izana aprobetxatuz, urtarrilaren 30ean mendi martxa bat egin dugu Orion, 11:30tan argazki bateratu bat ateraz hondartza gaineko talaian. Irribarrea berreskuratu!

Real Union taldeak Orioko futbol taldeari eta udalari

REAL UNION

[Gabonetan jasotako gutuna da] Eguberri on Orioko futbol taldeari eta Orioko Udalari!.

Zorrek zor lepoa lodi, euskal esaera zaharrak dio, baina urtea amaitzerako eskutitz honen bitartez zorrek kendu nahi ditugu neurri batean behintzat.

Real Union osatzen dugun guztion izenean, eskertza ohar hau iritsarazi nahi nahi dizuegu: eskerrik asko, benetan, urte zail honetako azaroan zehar Mendibeltzeko futbol zelaia ibiltzeko aukera eman izateagatik.

Gabonetako loterian saritxoak

AFAGI ELKARTEA

Gipuzkoako Alzheimer gaixoen Familiartekoen Elkarteak Orioko kideok Gabonetako Loteriako 29.772 zenbakiaren 210 partizipazio saldu genituen Orion, eta txartel bakoitzeko 21 euroko

saria jasoko dute partizipazioak erosi zituztenek. Laboral Kutxaren Orioko bulegoan kobratu daiteke saria, martxoaren 21a baino lehen. ■■■

JAIOBERRIAK

- **Lucy Arizmendi Silva.** Orion, 2020ko abenduaren 23an.
- **Teo Agulla Villalon.** Orion, urtarrilaren 2an.

HILDAKOAK

- **Maria Pilar Egurza Iruretagoiena.** Aian, abenduaren 29an.
- **Milagros Alustiza Telleria.** Aian, urtarrilaren 7an. 98 urte.
- **Higinio Arrizabalaga Lopetegi.** Aian, urtarrilaren 8an.
- **Carmen Ibarbia Etxaluze.** Orion, abenduaren 29an. 93 urte.
- **Agustina Segurola Etxaide.** Orion, urtarrilaren 7an. 82 urte.
- **Iosu Arruabarrena Arruti.** Orion, urtarrilaren 8an. 68 urte.
- **Primitivo Recio Diez.** Orion, urtarrilaren 12an. 75 urte.
- **Maria Pilar Diez de Menivil.** Orion, urtarrilaren 23an. 65 urte.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). **KARKARAK** eskubidea du gutuna laburtzeko. **KARKARAK** ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. **Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta pertsona horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio.**

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARARA bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.eus edo erredakziora eskura ekarri -Orioko edo Alaiako Kultur Etxean- edo postaz bidali. Kultur etxea, 20810 Orio

Julian Wilson, Kontxako 'baineru' oriotarra



IÑAKI ITURAIN iturain@gmail.com

ARGAZKIAK: KUTXATEKAKOAK ETA
KONTXITA CARMONARENAK

Donostiako Maria Cristina Hotela eta Victoria Eugenia Antzokia hiriko eraikin ederrenetakoak dira. Biek ere Espainiako erregina banari zor diote izena. Erregina haiek ama-alabak ziren, XIX. mende bukaera eta XX.aren hasierakoak. Biak ere Donostia zale amorratuak, urtero uda sasoi osoa ematen zuten bertan. Haiekin batera etortzen zen orduan Donostiara Espainia eta Frantziako jende asko: aristokratak, enbaxadoreak, ministerioko goi kargudunak...

Horrek eliteko turismoa ekarri zuen Gipuzkoako kostaldera. Udatiarrak entretenitzeko, ikuskizun asko sortu zen garai hartan: danborrada, traineru estropadak, Aste Nagusia, zaldi lasterketak, suak, eta baita maila altuko gastronomia bera ere. Baina lanik gabeko gizon-emakume haientzat hura dena ez zen nahikoa, udako egun libre luzeak betetzeko. Orduan, itsasoko uraren alderdi terapeutikoak fama hartu zuen, eta hondartzako bainuak terapia bihurtu ziren. Eguzkitatik babestuta, ez zutelako nahi nekazarien azal kolore iluna hartu, baina itsasoko uraren terapia bai.

Aristokrata aberats haien bainua zaintzeko eta haiei laguntzeko ofizioa sortu zen orduan: bainu-zaina, edo orduan zioten bezala, *bainerua*.

1840 aldean instalatu zituzten Kontxan lehenengo aldiz bainurako kasetak, eta bereziki errege-erreginentzako kasetak. Erret-kaseta bi errailen gainean jaisten zuten hondartzara, lurrunezko motor batez mugituta. Besteak apalagoak ziren: idi-pareak jaitsi eta igotzen zituen, udatiar ilustre haiek barruan zirela.

Baineruak udatiarrak kasetatik atera, urertzeraino lagundu eta haien bainua zaindu behar zuen. Itsasoko bainu hotzaren ondoren, kasetan ur beroarekin eta gero ur epelarekin bainatzen ziren berriz. Uda osoan gehienez ere bederatzi bainu har zitzaketen, gorputza asko nekatzen omen zielako. Orduetgia araututa zegoen, eta aristokratak goizeko lehen orduan joaten ziren.

Baineru oriotarrak

Orioko hainbat gazte hasi ziren Donostian lan horretan: Eugenio Genoba, Jose Mari Atxega, Erramon Lino, Manuel Salsamendi *Ferru*, Julian eta Donato Intxauspe... Gehienak arrantzaleak ziren, batzuk traineruko arraunlariak ere bai; baina arrantzako eta arrauneko diru sariak batuta ere, garai

hartan ez zuen nahikoa ematen diruz ondo ibiltzeko, eta uda garaian baineru lanak egiten zituzten Donostiako Kontxako hondartzan, sos batzuk eskuratzeko. Donostiara egun batzuetan oinez joaten ziren Igeldotik barrena.

Baineruek pieza bakarreko galtza handi bat izan ohi zuten soinean, zuria, marra horizontal beltzak zituena eta bular aldea osorik tapatzen ziena, eta hankak belaunetaraino. Mathilde Van Eys holandarrak kronika bat idatzi zuen 1868an senarrarekin Euskal Herrian zehar egindako bidaiaz. Zarauzko Udalak 2018an argitara emandako liburuxka batean deskribatuta agertzen da emakume hark Zarauzko hondartzan hartu zuen bainua: "Emakumeak ezin dira bainatu, ez bada bainuzain batekin. Hark gogor eusten zaitu une oro eskumuturretik. Ni goizean goiz bainatzen nintzen, itsasbeheran. Aldagelatik atera orduko, Francisco nire bainuzainak

**ARISTOKRATA
ABERATSEN BAINUA
ZAINTEKO ETA HAI EI
LAGUNTZEKO OFIZIOA
SORTU ZEN DONOSTIAN**



Zubia pasatuta, ezkerreko etxean bizi ziren Intxauspetarrak.

eskutik heltzen zidan. Uretara sartu behar genuenean, Francisco makurtu, uretan atzamarrak busti eta aitaren egiten zuen, babestuta sentitzeko. Itsaso biziko egun batean, olatu handi bat zetorren; Franciscok ni makurtzea nahi zuen, olatua gainetik pasatzeko. Saiatu zen ni beheratzen eskumuturretatik indartsu tiraka, baina ez nion utzi. Eztabaidan ari ginela, olatua iritsi eta garondoan kolpe gogorra eman zidan, Franciscori txapela eraman zion. Haserre zegoen, baina olatuak, erresakan, itzuli egin zion. Denbora luzean izan nuen garondoko mina, egingakoaren zigor modura...”.

Wilsonen erronka eta Julianen garaipena

Julian Intxauspe Genoba, 1879ko urtarriaren 7an jaioa, bigarrena zen 12 senideko familian (sei neska eta sei mutil). 1901ean Orion balea harrapatu zuten arrantzaleetako bat zen. Julian izan zen, baleak azken buztankadak eman eta hil ondoren, uretan murgildu eta azpitik txikota pasatuta balea lotu zuena, gero traineruek atoian lehorrera ekartzeko. Estropalaria ere izan zen: 1901, 1909 eta 1910ean Oriorekin Kontxako bandera irabazi zuen traineruko arraunlaria, Manuel Olaizola patroiz zutela. Behin, bi anaiarekin itsasoan arrantza egitetik bueltan zetorrela,

barran olatu batek harrapatu, ontzia irauli eta hirurak putzura bota zituen. Julianek beste biak



Luis Intxauspe, Julian Wilsonen anaia. Ortiz Echagüeren erretratoa



Nautikotik Loretopekorako joan-etorria izan zen lasterketa, igerian.

nola edo hala hartu eta atera zituen lehorrera.

Uretan gizon indartsua zen Julian, igerilari ona, Donostian urtero hartzen zuten udan baineru lanerako. Egun batzuetan, itsaso barea eta marea ona zenean, lana bukatuta, igeri etortzen zen Kontxatik Orioko etxera (zubia eta tren geltokiaren ondoan). Julianen azainak eta igerilari fama, gainerako bainuruek haizatuta, Donostiako Club Nauticoko arduradunengana iritsi ziren.

Halako batean, badirudi Wilson izeneko igerilari ingeles famatu bat etorri zela

Donostiara. Hiriz hiri zebilen, tokian tokiko igerilari onenei apusturako erronka eginez, uretan lasterketa jokatzeko; eta, aidanean, ordura arte denei irabazi zien. Gauzak horrela, Nauticoko agintariek onartu egin zioten erronka ingelesari. Kontxako baineruen aldetik berehala aldarrikatu zuten Julianen izena, norgehiagokarako. Intxauspek onartu egin zuen.

Adostutako eguna eta ordua ailegatuta, bi baliza jarri zituzten igeri bidea mugatzeko. Joan-etorria egin behar zuten udaletxearen ondoan dagoen Nauticotik Loretopekora, bi

hondartzak bereizten dituen arroka tokira, Miramar jauregiaren azpian (gaztelaniaz gaizki izendatutako Pico del loro). Julian ohiko trajebainuarekin, bainuzainen marra horizontaleko txuri-beltza, eta ingelesa antzeko beste batekin, baina beltza.

Nauticotik abiatu orduko aurreratu zen Julian. Ingelesa Loretopekoko balizara iritsi zenerako, Intxauspe urruti zeukan, ziaboga hartuta helmugarako bidean. Ingelesa, jabetuta zenbaterainoko alde zion oriotarrak, erretiratu egin zen. Nauticoko jendeak sekulako harrera egin zion Intxausperi. Julianek helmuga igaro zuenean, jendeak bero-bero hartu zuen, bibaka eta txaloka. Lasterketaren ondoko ospakizunetan ingelesek, tartean Wilson zela, onartu egin zuten euskaldunaren nagusitasuna, eta festa giro onean bukatu zen.

Ez dakigu Julianek bestelako saririk irabazi ote zuen, baina



Idien bidez jaisten zituzten bainurako kasetak. Han atzean, Erreginaren kaseta.



Bainerua emakume aristokrata bati bainuan laguntzen.



Orioko hondartzan, familia bateko kideak XX. mendearen hasieran.

egun hartako balentriaren oihartzunak luze iraun zuen, eta handik aurrera ezizen baten jabe egin zen: Orioko Wilson. Mendebete geroago, gaur egun oraindik oso gogoan ditu Wilsonen abenturak haren iloba Donato Intxauspek.

Turistak Oriora

Orio, kostaldean, turismo maila handiko bi herriren artean egonagatik (Zarautz eta Donostia), hona oso gutxika iritsi zen turismoaren fenomeno.

Dena dela, sortu ziren hotel batzuk (denak kamio ondoan: Toki Alai, Esnal, Salsamendi...) eta, halako batean, bainuzain lana Oriora ere etorri zen. Donato Intxauspe (Julianen anaia), Donostiako baineru izan ondoren, Orioko bainerua izan zen urteetan. Haren seme-alabei eta *Bañeruanekok* esaten zitzairen herrian.

Gerra ondoreneko garaian, maila altuko turistak ere hasi



Antilla hondartzan, kulunkan.

ziren etortzen; Donostia eta Zarautzen oso bestelako neurri eta mailan, jakina. Honela kontatu zigun Juanito Urkizuk bera gaztetxo zen garaiko Orioko turisten uda giroa: “Martin-Artajo ministroaren ilobak etortzen ziren udan carmonatarren etxera, hiru gazte. Han egoten ziren. Hondartzara joateko niri deitzen zidaten. Nik



Antillan bi haur, eguzkitatik babesteko aulkian.

orduan 15 bat urte nituen. Karro batean eramaten nituen hondartzara, sareak garraiatzeko batean; bertan banku batzuk zituen jarrita eta haien gainean eserita eramaten nituen. Zentralen (Toki Alai) ostatu hartuta egoten zen *La viuda alegre* ere eramaten nuen gurdian hondartzara, alarguna bere seme-alabekin”. ■■■



Katu Horia
albaritza klinika

ESTROPALARZ, 10
20810 ORIO
tel. 943 11 66 99

LARRIGIARZ
668891129



kutixi
kafetegia

Aritzaga 9 • ORIO • 943-13 15 17



KORTABERRI
arotz lanak

Imanol Illarramendi
Aia (Gipuzkoa)

kortaberi.arotza@hotmail.com

665 70 33 47



Lizaso
Dekorazioa

Eusko Gudari, 48 • ORIO • 943-83 07 84
itzilizaso@gmail.com

libe
dietetika
elikadura aholkularitza

943-53 64 94
697 23 86 56
libegarmendia@gmail.com
www.libegarmendia.com


Ordo elikatuz Bizi

Eusko gudariak, 35 • ORIO
(sarrera Arrantzale kaletik)




MARIJO
ILEAPAINDEGIA

Eusko Gudari, 8 behea • ORIO
943-13 47 29



niko
taberna

Karta
Pintxo tradizionalak
Okindegia




Palota Kalea, 5 • 20810 Orio • Egin erreserba 943-53 61 27

MENDIZABAL
AROTZEGIA

Neurriko armairuak eta egurlanak

Altzerri bidea, Beti-Alai etxea • AIA-ORIO
943-83 11 75 • 645 70 84 91
mendi@arotzgi.net

OINARRI PODOLOGIA ZENTROA



Arrantzale kalea, 63 behea
ORIO
943-57 53 61
oinarri@podologia-oinarri.com
www.podologia-oinarri.com



narau
school & translations

www.narau-school.com

Eusko Gudari 29 - ORIO
943-83 11 16
648 97 64 70
info@narau-school.com

PAKO IMAZ



PERTSIANAK
aluminioa
motorrak
automatismoak
konponketak

600 70 52 27 • 943-13 29 01
pakoimaz@hotmail.com • ORIO

Nola bizi duzu pandemiako hirugarren olatua?



JON OTAMENDI

"Izurritearen eboluzioa oso gorabeheratsua ari da izaten, eta frustrazioa eragiten du olatuen kontuak; agintariak egoera kontrolatuago izatea gustatuko litzaidake, eboluzio hori linealagoa izatea. Gabonei dagokionez, neurriak baino gure jokabidea jarriko nuke ezbaian; neurri gogorrek jartzeak ez du ezertarako balio, gero ezkutuan taldeka-eta juntatuko bagara. Guk hiru urteko semea konfinatuta izan dugu hamar egunez gelako batek positibo eman eta gero. Kosta egiten da umeekin halako egoerei aurre egitea. Etxean ondo egon zen, baina umore petralagoa izan zuen egun horietan, lo okerrago egiten zuen, lagunak gaineko galderak egiten zituen... Iruditzen zait egoerak hobera egin behar duela hemendik aurrera. Txertoak lagunduko du buelta ematen".



JAIONE SOLABERRIETA

"Normaltasunez bizitzen ari naiz koronabirusaren hirugarren olatua, nire inguruan ez delako positiborik izan. Bizitza normala daramagu etxean, eta gainontzean etxetik lanera joaten naiz. Lantokian ere ez dut aldaketarik sumatu, bakarrik lan egiten dudalako. Egia da Gabonetatik kasuek gora egin dutela herrian, eta ez zaizkit egokiak iruditzen egun horietarako hartu zituzten neurriak; uste dut aurretik genituen arau murriztaileekin jarraitu behar genuela. Aurrera begira, egoera hau luzerako izango dugula pentsatzen dut. Txertaketa abian da, baina oso mantso doa. Hasieran esan zuten txertoa iristen zenean nabarmen egingo zuela hobera egoerak, baina horrenbeste jende txertatzea lan handia da, eta iruditzen zait oso poliki joango dela."



ADALBERTO VARELA

"Egoera kezagarria dela iruditzen zait. Oso zaila da birusaren jokaera ulertzea, zientzialariei ere gauza askok alde egiten diete oraindik ere. Aurreneko olatuan eredu garritzat jo ziren herrialde batzuk bigarrenean oso gaizki pasatu zuten. Laster urtebete izango da izurritea hasi zenetik, eta jendea nekatzen ari da, osasun neurriek eguneroko bizitza mugatzen dutelako. Gure kasuan, harreman sozialak ahalik eta gehien murriztea adostu genuen etxean, eta azken hilabeteak poz handiegirik gabekoak izan dira. Gabonei dagokionez, neurri gogorragoak hartu behar zirela uste dut, orain bizi dugun egoera hau ekiditen saiatzeko. Optimista izan nahi dut aurrera begira. Bikotekidea ikerlaria dut, eta konponbide nagusia zientziatik etorriko dela irizten diot." ■■■

Urratsez urrats aurrera

Gero eta jende gehiago aritzen da korrika, bai kalean, bai mendian. Orion eta Aian ere islatu da fenomeno hori, eta KARKARAK bi herrietako korrikalariengana jo du, kirolaren berezitasunak ezagutzeko. Orioko Atletismo Eskolakoan, Orioko eta Aiako mendi lasterketen antolatzaileen, Aiako emakume korrikalari taldearen eta hainbat norbanakoren iritziak bildu ditugu.

Testua: **Iñigo Gaiton eta Aiora Larrañaga Solaberrieta**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea eta Karkara**.

Gaur egun, haur, gazte eta helduek osatzen dute Orioko atletismo taldea; Ziani da kadete mailatik aurrerako korrikalarien entrenatzailea, eta Rubio eta Ziani jarduten dira haur eta gaztetxoak prestatzen nahiz taldea kudeatzen. Alde batetik, Atletismo Eskola dute, eta bertan LH1 eta DBH 4 bitarteko haurrekin aritzen dira; Eskola Kirolaren egutegia jarraitzen dute, irailetik maiatzera bitartekoa. Txikienekin, batez ere, jolasak eta ariketak prestatzen dituzte haurrentzat eramangarriagoa izan dadin, eta garrantzia handia ematen diote teknika lantzeari. Urtez urte hazten ari da korrikalari gazte kopurua herrian, eta Rubiok aitortu du azken urtean haur asko gehitu dela taldera, “pandemia dela eta, beste kirol askotan ezin izan dutelako normaltasunez aritu”. Hala, koronabirusaz babesteko neurri gisa, haurrek talde txikietan entrenatzen dute Atletismo Eskolan, eta taldeko kide helduagoak begirale lanetan aritzen dira. “Denok ari gara Atletismo Eskolan laguntzen, eta aberasgarria izaten ari da esperientzia”, dio Rubiok. Bestetik, kadete mailako bost korrikalari ere badituzte taldean, lau mutil eta neska bat: “Hasieratik gurekin entrenatzen duten haurrak hazten ari dira, eta kadete mailako taldetxoa osatu dugu”. Dena dela, argitu du atletismo taldean parte hartzen duten gaztetxo gehienek atletismoa beste kirolen batekin uztartzen dutela. “Atletismoa oso ona da koordinazioa hobetzeko, eta gurekin landutakoa oso baliagarria zaie beste kirolen ere. Oraindik gazteak dira, eta uste dugu aberasgarria dela bi kirol uztartzea. Gainera, taldeko kirola oso garrantzitsua da gartzetan,



eta atletismoa nahiko gogorra da zentzu horretan, bakarkako kirola delako, eta aspertu eta erre egin daitezke atletismoa bakarrik eginda”.

Xabat Rubio, Aitor Rubio aitaren urratsak jarraituz hasi zen korrika. "Aita gustura ikusten nuen korrika eta nik ere probatzea pentsatu nuen. Orain futbola eta korrika uztatzen ditut. Hemendik urte batzuetara ez dakit zer egingo dudana, aukeran bi kirolak gustatzen zaizkidalako", dio gazteak.

Martin Iriondok ere atletismoa eta igeriketa uztartzen ditu, eta emaitza bikainak lortzen ari da korrika, 16 urtez azpiko Espainiako Txapelketan, esaterako, laugarren egin baitzuen urrian. Dena dela, aitortu du ezustean harrapatu dutela emaitzek. "Oso gustura nago taldean, giro ederra dugulako eta hobetzen eta nire burua gainditzen laguntzen didalako. Aurrera begira, triatloia probatu nahiko nuke, eta orain igeriketan eta korrika aritzea baliagarri izango zaizkidalako uste dut", azaldu du.

Neskak gerturatzea da Orioko atletismo taldearen erronka. "Atletismo Eskolan badabilta neskak, eta helduen artean ere emakume asko ikusten dira kalean korrika, baina oraingoz Atletismo Eskolan ibili diren neska gutxi animatu dira jarraitzera". Horietako bat da June Rodriguez gaztea; pasa den urtean hasi zen atletismo taldean, eta kadete mailan neska bakarra bada ere, "oso gustura" dago. "Giro ederra dugu taldean, eta eroso sentitzen naiz. Pasa den ikasturtean hasi nintzen, kirola egin nahi nuelako. Atletismoa aukeratu nuen, eta ez naiz damutzen; herriko neskak ere animatuko nahi ditut taldera". Aitor Rubiok uste du

denborarekin lortuko dutela neskak erakartzea: “Ateak irekita dituzte”, esan du taldeko arduradunak.

Helduak ere taldean

Haur eta gaztetxoek ez ezik, helduek ere parte hartzen dute Kamel Ziani Atletismo Taldean. “Korrikarako zaletasuna genuen herritar batzuk Whatsapp talde bat sortu genuen elkarrekin entrenatzeko eta lasterketetara joateko, eta pixkanaka jendea gehitzen joan da. Gaur egun hogeitaz inguru gara”, zehaztu du Rubiok. Horietatik batzuk federatuak dira; izan ere, COVID-19aren pandemia dela eta, lasterketak mugatuta daude, eta atletismoan federatutakoei aukera ematen die federazioak Donostian Belodromoko pista estalian eta Anoetako aire libreko pista lehiatzeko. Hala, bederatzi korrikalarik eman dute federatzeko urratsa. “Federatuta egon edo ez, denok gara taldeko kideak”, argitu du Rubiok.

Asteko entrenamendu taula bidaltzen die Kamel Zianik kide guztiei; entrenamendu asko denentzat berdinak edo antzekoak izaten dira, baina badira korrikalari bakoitzak bere erritmora egin behar dituen saioak ere. “Hasierako beroketa eta amaierako hozketa elkarrekin egiten ditugu, eta bakarka aritzea baino errazagoa dela aitortu behar dut. Giro ederra dugu geure artean, eta guretzat atseginagoa da elkarrekin entrenatzea. Talde irekia gara, eta norbaitek gurekin entrenatu nahiko balu, ateak zabalik ditu. Emakumeak ere animatu nahi ditugu parte hartzera, oraingoz denok gizonak baikara”.

Teknika

Korrika bakoitzak bere erara egiten duela pentsatzen bada ere, teknikak garrantzia handia duela azpimarratu du Rubiok. “Teknika asko lantzen dugu. Haur askok, korrika ari direnean, lurra orpoarekin zapaltzeko ohitura dute; oin-puntarekin egiten saiatu behar da, ordea, orpoarekin zapalduta bizkarreko minak sor daitezkeelako. Horrelakoetan, gurasoekin hitz egiten dugu, eta zuzentzen saiatzen gara, haur eta gaztetxoek onerako delako. Izan ere, teknika ona duenak lasterketan zehar gutxiago sufrirituko du, oker egiten ari denak konpentsatzeko ahalegin handiagoa egin behar delako”.

Haurrek ez ezik, helduek ere urteen poderioz bereganatutako ohitura txarrak badituztela aitortu du atletismo taldeko kideak. “Oso zaila da korrika ondo egitea. Are gehiago: esango nuke, taldekideon artean Kamel Ziani eta Hossain Kaanache direla korrika behar den bezala egiten duten bakarrak. Horiek asko landu dute teknika; gainontzekoak, berriz, duela gutxi jarri dugu arreta alderdi horretan. Horregatik ematen diogu garrantzia haurrekin teknika lantzeari: gorputza zuzen eta aurrera begira korrika egin behar da. Heldutan ere zuzentzen ditugu joera txarrak, eta ohartzen gara oinarrizko arauak beteta, askoz hobeto egiten dela korrika”.

Mendi lasterketak

Ingeleses *running* deitzen dioten fenomenoak kaleak korrikalariz bete baditu, mendian ere antzeman da korrikalari kopuruaren hazkunde hori. Hala uste du Bittor Andresek. “Duela hamasei

urte-edo hasi nintzen mendian korrika, eta orduan inor gutxi ibiltzen zen. Asfalto gainean ibiltzarekin aspertu egin nintzen, maratoiak egitera iritsi eta gero, eta Iban Osak Zegama-Aizkorri egitera animatu ninduen. Ikaragarri gozatu nuen lasterketan, eta kateatu egin ninduen kirolak”. Orduetik, hamahiru alditan egin du lasterketa ezaguna Andresek, eta 05:55:00 du errekorra. “Lehen ez zen arazorik izaten dortsalekin, baina orain, 15.000 izena emandakoen artean 250 zozkatzen dira”.



Orain, osasun neurriak direla-eta, jende gehiago dabil mendian korrika. “Asko antzeman da, Kukuarri aldera joan besterik ez dago hori ikusteko. Azken elurtearen aurretik, Txindokin izan nintzen goizean goiz, eta lauhun pertsona pasatu nituen. Normala ere bada jendeak mendira jotzea, ulertzekoa da. Horren aurrean, goizean goiz ibiltzen naiz ni, ilunpetan, buruan linterna jarrita”, argitu du.

Orioko Mendi Lasterketa sortu zutenetako bat da Andres. “Mendian ibiltzen ginen hiruzpalau laguneko taldetxoa, eta gure artetik sortu zen lasterketa egitearen ideia. 2010.urtean egin genuen aurrenekoa, eta 400 korrikalarik parte hartu zuten, plaza denak bete ziren. Izan ere, orduan ez zen lasterketa askorik inguruan. Gero, seigarren ediziotik aurrera, parte hartzaile kopuruak pixka bat jaitsi zen, baina 350 lagun juntatu izan dira ia beti”.

Korrikalariak, antolatzaileak eta boluntarioak, jende asko mugitzen duten ekimenak dira mendi lasterketak, eta halakoetan ez da anekdota faltarik izaten. Andresek kontatu duenak, ordea, ez du jendearekin zerikusirik: “Mendiak su hartu zuen bezperan, bosgarren urtean. Ibilbidea moldatzea erabaki genuen, eta azkenean, korrikalariarentzat lasterketa gogorragoa izan zen horren ondorioz”.

Aian 2012an egin zuten mendi lasterketaren lehen edizioa, kirola hartzen ari zen indarra ikusi eta gero. “Aian zerbait baldin badugu, hori mendia eta paraje ederrak dira. Lasterketa antolatu behar zela argi ikusi genuen”, azaldu du Joxe Mari Aiertzak. Aiako Kirol Elkarteak idea da. 138 partaide izan zituen lehen edizioak, eta 135koak 358.

Aiertzaren iritziz, bi berezitasun ditu haien lasterketak: “Nahikoa motza da, 15 kilometro eskasekoa. Denboraldiaren hasiera aldean egiten dugu, martxoko lehen igandean, korrikalariak sasoian jartzeko izaten direlako oraindik. Bestetik, Pagoeta Parke Naturalean egiten da ibilbidearen %90, paraje ederrean”.

Orion eta Aian, bi lasterketetan izaten da giro paregabea, bi antolatzaileek baieztatu dutenez.

**HAUR ETA GAZTETXOEK
EZ EZIK, HELDUEK ERE
PARTE HARTZEN DUTE
KAMEL ZIANI
ATLETISMO TALDEAN**

**MENDIAN ERE
ANTZEMATEN DA
KORRIKALARI
KOPURUAREN
HAZKUNDEA**

"Luxua da Kamelekin entrenatu ahal izatea"

IÑIGO EXPOSITO KORRIKALARIA

Zenbat urte dira korrika egiten hasi zinela?

Lauzpabost, gutxi gorabehera. Futbola utzi egin nuen, lesioak eta lan-kontuak tarteko, eta korrika egiten hasi nintzen, nolabait, kirola egiten jarraitzeko. Hala, Behobia-Donostia lasterketan parte hartu nuen.

Denbora ona egin al zenuen?

Ordu bat eta hogeita zazpi minutuan bukatu nuen ibilbidea, baina kristoren beroa egin zuen urte hartan. Gerora, hobetzen joan naiz, eta azken karreran ordu bat eta bederatzita minutuan helmugaratu nintzen. Ikaragarria izan zen niretzat ordu bat eta hamar minututik jaistea.

Zure kabuz entrenatzen hasi zinen, baina orain, taldean ibiltzen zara Kamel Zianiren gidaritzapean.

Duela urte eta erdi edo sortu genuen taldetxo. Egia esan, luxua da Kamelekin entrenatu ahal izatea. Erreferentea da Estatu mailan. Dakien guztiarekin, punta-puntako atletak entrenatzeko aukera izango luke, baina hemen jarraitzen du, haurrekin, gaztetxoekin eta gu bezalako afizionatuekin, herriari ekarpena eginez.

Zer da harekin ikasi duzuen gauzarik handiena?

Atletismoaren mundua guk uste genuena baino zabalagoa dela. Orain konturatu gara gure kabuz entrenatzen hasitakoan ezer gutxi



genekien, ia ezer ez. Korrika egiteak ariketa simplea dirudi, baina oso zaila da teknika ona izatea, ez bada umetatik lantzen.

Bestalde, Kamelek erakutsi digu atletismoa kirol gogorra dela, ez da eskertua, eta taldean aritzeak garrantzia handia duela, bestela oso kirol bakartia bihurtzen delako.

Asteburuetan, goizean goiz sarri, denak emanda ibiltzen zarete herrian bueltaka Jokin Bellido, Ibai Makazaga, Aitor Rubio, zu zeu... Nork du aberiarik handiena?

Makazagak! Kar-kar-kar. Harrigarria da sufritzeko duen gaitasuna. Bellidok kalitate handia du korrika, baina Makazaga aurkari gogorra da lasterketetan. Oso zaila da atzean uztea, duena baino gehiago ematen duelako beti, akabatu arte.

Osasunari dagokionez, zer esaten dizu gorputzak azken urteetan?

Korrika egiten hasi nintzenetik osasuntsuago bilatzen dut nire burua. Aldaketa onerako izan dela esango nuke. Osasun fisikoaz gain, psikologikoki ere indartsuago izaten ikasi dut, atletismoan asko sufritzen delako. Kirolaren gauza onenetakoa da sufritzen ikasteko aukera izatea. Korrika egiteak nire burua hobeto ezagutzen lagundu dit.

Marra fina izango da sufrimenduaren eta gozamenaren artekoa.

Bai. Korrika, buruan duzun helburua edo marka betetzera zoazela ikusten duzunean, gozamena handia izaten da, momentu horretan gorputza muga-mugan izan arren. Kontraesana dirudien arren, sufrimendu handiko momentuetan bizi daitezke gozamen unerik handienak ere.

"Niri gustatzen zaidana lehiatzea da"

NEREA AMILIBIA MENDI LASTERKARIA



Nolatan hasi zinen korrika?

Dagoeneko ahaztuta dut, orain dela hogeit urte izan zen eta. Alaba izateko haurdun nengoenean asko gizidun nintzen, eta hartutako kilo haiek botatzeko asmoz hasi nintzen. Korrika aritzen zen kuadrilla bat ezagutu nuen, eta haiek mendira joaten ziren korrika. Ni, hasieran, herrian gelditzen nintzen, baina egun batean ni ere animatu egin nintzen, eta gaur arte. Gero, lehiatzen hasi nintzen, eta niretzat ikaragarria izan zen, asko gustatzen baitzait lasterketetan aritzea.

Aurretik beste kirolen bat egindakoa zinen?

Ikastolan atletismoan aritzen nintzen, baina erditan ez nintzen saioetara joaten, baserrian lan asko izaten guelako. Gainera, garai hartan, nire aitari ez zitzaion gustatzen galtza motzak

jantzita korrika ibiltzea, artean gaizki ikusia baitzegoen. Nik esaten nion galtza luzeak edo motzak jantzita, baina korrika egitera joan nahi nuela, eta ezkutuan entrenatzen nuen, baina ez nuen atletismoan lehiatzeko aukerarik izan. Ezkondu ondoren, ordea, korrika egiteari ekin nion, aitik esango zuenaren beldurrik gabe. Azpeitian jokatu nuen mendiko maratoki erdi bat ikustera etorri zen behin, eta helmugara aurrena sartzen ikusi ninduenean asko emozionatu zen.

Hogeit urte daramatzazu korrika; jarraitzeko sasoiko sentitzen zara?

50 urte beteko ditut martxoan, eta oraindik ere daukadan adinerako indartsu nagoela iruditzen zait. Egia da ez ditudala lasterketak lehen bezala irabazten –oraindik podiumera igotzea lortzen

badut ere– baina ez zait inporta, gustatzen zaidana lehiatzea delako, eta gorputzak erantzuten didan bitartean, horretan jarraituko dut. Bizipoza ematen dit; lasterketa aurreko urdurasuna sentitzea eta horiek baretuta lasterketa jokatzeko sekulakoa iruditzen zait. Orain, pandemia dela eta, lasterketa gehienak bertan behera geratu dira, baina berriz ere antolatzen dituztenerako prest izango naiz.

Mendian korrika egitea duzu zuk gogoko?

Normalean mendian aritzen naiz beti; niri gehiago gustatzen zait, eta uste dut asfaltoan baino gutxiago sufritzen dela. Maratoki erditan eta maratokit jarraitzen naiz. Jende asko adinean aurrera doan heinean lasterketa luzeagoetara pasatzen da, baina ez da nire asmoa. Duela zortzi urte egin nuen Hiru Handiak ehun kilometroko lasterketa, eta ikaragarri gogorra iruditu zitzaidan. Oso emaitza ona lortu nuen; 13 ordu eta 40 minutuan osatu nuen ibilbidea eta 3.500 parte hartzaileetatik 15. postuan sailkatu nintzen, eta bigarren postua lortu nuen emakumezkoetan. Niretzat lorpen ikaragarria izan zen, baina egur handia jaso nuen. Normalean, horrelako lasterketa bat egin ondoren hilabete bat edo bi behar izaten dira errekuperatzeko, baina nik nire betiko martxan jarraitu nahi nuen, eta fisikoki kolpe handia izan zen. Beraz, gorputzak uzten didan bitartean, orain arte bezala jarraitzea da nire nahia.

"Libre sentitzen naiz korrika ari naizenean"

MIKEL USANDIZAGA MENDI LASTERKARIA



Gero eta jende gehiago ikusten da mendian korrika. Zer du kirolak hainbeste jende kateatzeko?

Nire ustez, deskonexioa da mendian korrika ibiltzearen gauzarik onena, naturan erabat murgilduta izaten den lasaitasuna. Nire kasuan behintzat, libre sentitzen naiz korrika ari naizela. Momentu ederrak izaten dira, sufrimendua, lokatza, parajeak etab.ek bat egiten dutenean.

Garai aldrebesotan, are gehiago baloratuko da mendiak ematen duena.

Bai, guztiz. Mendian korrika egin eta gero gozo-gozo egoten naiz etxean, bakean. Aldapa gora eta behera botatzen ditut nire urduritasun

eta eguneroko bizitzako kezka guztiak.

Hemen bizita, entrenatzeko toki onak al daude inguruan?

Orion, Kukuarriren bueltan daude ibilbiderik onenak, baina erritmoa hartu eta kilometro asko egiteko ez da inguru aproposena. Aian, adibidez, aukera gehiago dago horretarako Pagoeta eta Hernio aldera jota.

Zein da zure toki kutuna?

Kukuarri, dudarik gabe. Orduak eta orduak egiten ditut han bueltaka.

"DESKONEXIOA DA MENDIAN KORRIKA IBILTZEAREN GAUZARIK ONENA"

Kirol sufritua al da?

Hasieran bai. Nire kasuan, aurreneko lasterketak hanka-pelotak igota bukatzen nituen. Gero, ordea, pixkanaka indarra hartzen da hanketan, eta errazago joaten zara, erritmoa hartuta, eta gehiago gozatzen da.

Teknika handia behar izaten al da mendian gora eta behera azkar ibiltzeko?

Egia esan, nire entrenamenduak esparru fisikoari begira egiten ditut, seriak-eta eginez, eta ez dut teknirik lantzen. Ibiliarekin asko ikasten da, eta orduak sartu ahala erosoago eta seguruago ibiltzen zara aldapan behera.

Kirol arriskutsua al da?

Gu ibiltzen garen mailan, ez dut uste arriskutsua denik. Nik neuk ez dut inoiz lesio larriegirik izan, eta ingurukoek ere ez. Lasterketetan-eta kolpeak hartzen dira, baina ez dut eroriko handiegirik izan.

Non lortu duzu orain arteko posturik onena?

lazo udan lasterketa bat egin zen Bizkaian, eta hirugarren egin nuen pronatza horretan, 150 lasterkariren artean. 2020an, izurritea hasi baino lehentxeago, laugarren sailkatu nintzen Zarauzko proba hartan. Sasoi betean nengoela hasi zen osasun krisia.

Zer amets duzu mendian lasterketei dagokionez?

Zegama-Aizkorri egitea gustatuko litzaidake, behin bada ere. Ikaragarria da han izaten den giroa, eta mendian 42 kilometro egitea erronka latza den arren, gustura prestatuko nuke mendiko lasterketa hori.

MARKETIN ETA KOMUNIKAZIO ZERBITZUAK

08



Ikus-entzunezkoak

09



Argitalpen digital multimedia

01

Publizitatea



Papera

07



Identitatea eta marka irudia



Atari digitalak

06



Diseinu lanak



Telebista

05



Webguneak eta marketin digitala

04



Edukien sorkuntza

03



Komunikazio kanpainak

02



Estrategia eta planifikazioa

B K erto  KH  ZH

Aiako emakumeak ere korrika

Aian ere juntatzen da taldetxo astelehenero korrika egiteko. Kasu honetan, emakumezkoak dira taldeko partaide denak, eta Aitor Hoyosen gidaritzapean egiten dituzte saioak.

“Iazko Lilatoia egiteko aitzakiarekin sortu zen taldea. Aurretik beste emakume taldetxo batekin ere aritua nintzenez, laguntzeko proposamena jaso eta onartu egin nuen”, dio Hoyosek. Azken asteetan ez dute elkartzetik izan osasun neurrien ondorioz, baina bestela, astelehenero izaten dute zita, arratsaldeko zazpiak eta erdietan. “Bost edo sei laguneko kuadrilla zena handituz joan da, herrian ahoz aho zabaldu eta gero, eta denera hogeita bi edo izango gara”, azaldu du.

Profil desberdinetako emakumeak biltzen dira taldean, tartean, aurretik kirola edo korrika egin gabekoak. Korrikak jendea zergatik kateatzen ote duen galdetuta, hau erantzun du Hoyosek: “Kirol merkea da, hasteko. Gero, beste kirol batzuekin konparatuz gero, denbora gutxi behar izaten da itxurazko saio bat egiteko. Eta, gainera, oso eskertua da korrika egitea, bi edo hiru astean hobekuntza izaten delako”. Horrez gain, taldean ibiltzeak ere indar handia duela iritzi dio.

Eneritz Erkizia da taldeko partaideetako bat, eta berarentzat ere gustagarriagoa da korrika lagunekin batera



egitea. “Denetariko egunak izaten ditugu. Batzuetan berriketan joateko gai izaten gara, eta besteetan, norbere buruarekin lanak izaten dira erritmoari eusteko, entrenamenduaren arabera”, argitu du.

Erkiziari betidanik gustatu izan zaio kirola egitea, baina ez zuen korrika egiteari segida ematea lortzen. “Aspalditik neukan pendiente. Talde honekin hutsetik hasi ginen denok, eta poliki-poliki, gustua hartu diogu”, dio pozik. “Orain, korrika sufritzen ikasi dugu, eta horrekin gozatzen. Lehen,

tarteka ateratzen nintzen bakarrik, eta sufrimendu horri ez nion gozamenik ateratzen. Orain arinago bilatzen dut nire burua korrika ari naizenean, eta hobetzen ari zarela ikusitakoan, gero eta erritmo politagoan, sentsazioa ona izaten da”. Arnasa beteta izaten den momentuetan ere “gozatzeko” gai dela ikusteak kateatu du Erkizia korrika egitera, beste asko bezala.

Korrika egiteak eguneroko bizitza egurasten laguntzen duela dio askok, eta horrekin bat dator Erkizia. Ariketa fisikoak gorputzari egiten dion onuraz gain, astelehenetako zitak “sozializatzeko” aukera ematen diela ere nabarmendu du. “Harremantzeko beste modu bat da, eta gure kasuan, adin desberdinetako jendearekin tratua izateko bide bat”.

**KORRIKA EGITEAK
EGUNEROKO BIZITZA
EGURASTEN LAGUNTZEN
DUELA DIOTE ASKOK**



Estrata 3. Pab. Errasti (Aginaga Auzoa) 20170 USURBIL
Tel./FAX-a: 943-36 93 59 · Mugikorra: 676 35 56 35
mueblesaguinaga@mueblesaguinaga.com

Jaunartzeak 2021 Argazki Sesioak



ARGAZKI SESIOA
ALBUMA
OROIGARRIAK
ARGAZKIAK DIGITALEAN

EGIUREN ARGAZKI ESTUDIOA
Erreserbak irekita
607 54 27 63
egigurenargazkiak@gmail.com

ORIO-AIA-ZARAUZ-GETARIA-ZUMAILA
USURBIL-DONOSTIA-AZPEITIA-AZKOITIA-ZESTOA



Dikeko proiektu berria hizpide

Testua: **Karkara eta Orioko udal taldeak**. Argazkiak: **Iñigo Gaiton**

A benduko udalbatzarrean Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren aldaketa puntualari – Dike-Kofradia eremu ez-jarraitua biltzen duena– lehen onarpena eman zion Orioko Udalbatzak. Hasiera batean, hizpide arrunta zirudiena eztabaida korapilatsua bilakatu zen. Izan ere, EH Bilduk, PSEk eta Orain herri paraformak aldeko botoa eman zuten, baina EAJ abstenitu egin zen eta azaldu zuen ez zaiola egokia iruditzen Dike-Kofradia biltzen dituen eremu urbanistikorako proposatzen den proiektua.

Hori dela eta, KARKARAK Dike-Kofradia eremuko proiektuaren inguruko iritzia eskatu die udal taldeei.

OHARRA: Udal taldeen adierazpenak laburtuta daude, baina webgunean osorik irakurtzeko aukera izango dute herritarrek.

"Hiri eredu berri bat sortzea nahi dugu"

ORIOKO EHBILDU

(...) 2020ko urtarrilean zegokion administrazioari bidali zitzaion proiektua aztertu eta erantzun zezan, eta urtean zehar hainbat txosten jaso ditugu administrazio ezberdinetatik. Ingurumen sailak, esaterako, aukeratutako antolamendua ingurumenaren ikuspegitik egokiena dela adierazi du.

Hirigintza jarduketa hau, Oriorentzat garrantzitsua izango da. Batetik, Kofradiari irtenbide bat ematen zaiolako, bertan interpretazio zentroa egin eta Kofradiarentzat lokalak egingo dira. Eta

bestetik, Dike eremuan herriari lotura eta bizia emango dion hiri antolamendu bat sortuko delako.

Udalak esku-hartze zuzena izan du erabaki hauek hartzeko garaian eta aukera oso garrantzitsuak izango ditu proiektu hau aurrera joan ahala. Eraikigarritasuna hasierako planetik, handitu egin da eta honekin etxebizitza sozial gehiago egitea eta ekipamendu berriak sortzea lortu da. Antolamendu berri honekin, hiri eredu berri bat sortzea nahi dugu. Orion azken

urteetan eraiki den bezala, auzo periferikoak sortu dira, zerbitzu gutxirekin eta merkataritza gunerik gabe. Orain dugu aukera hori aldatzeko. Orion eraiki daitekeen eremu handi bakarrenetakoa da, eta Anibarko Portu aldera, herriko zutabe bat lotzeko balioko du. Gainera, merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu-gune berria sortuko da. Errioiari begiratuko dion eremua izango da eta herritarrok ingurua biziberrituko dugu. Orain, behin betiko onarpen prozesuan sartzen gara, bide honetan orain arte bezala, elkarlana eta akordio zabalak bilatzea izango da EHBildutik egingo den lana.

"Antolamendu berriak kezkatzen gaitu"

EAJ

(...) 2020ko urtarrilaren 8an aurkeztu zen Dike-Kofradia eremuaren aldaketa puntualaren dokumentua udalean. Geroztik, EAJ taldeak sarritan eskatu du ordenazio horri alternatibak aztertu behar zaizkiola Hirigintza batzordean, Udalaren ardura delako herriarentzako ordenazio egokiena bermatzea. Erantzun ezak behartuta, 2020ko urriaren 16an idatziz sartu genuen eskaera, eta esan genuen ez genuela txostena onartuko zalantzak argitu arte. Erantzunik gabe, abenduaren 18an, (...) plan berriari lehen onarpena emateko eskatu

zaigu. EAJk beti izan du akordioak lortzeko jarrera. (...) Antolamendu hau onartzeko orduan, ordea, proiektuaren sustatzaileen iritzia bakarrik hartu du kontuan udal gobernuak. Ez du beste aukerarik landu nahi izan.

Antolamendu berriak –bere legezkoatasunaren zalantzarik ez badugu ere– kezka handiak sortzen dizkigu:

- Toki alai eta Arozena eremuakin lotura egokiagorik ez al dago? Aita Lertxundiri egiten zaion inpaktua ezin al da arindu?
- Lehen lerroko eraikin nagusia Orioko luzeena

izango da, Aita Lertxundi eta errioi aldea banatuz. Genero ikuspegitik ez al dira puntu beltzak eraikina zeharkatzeko pasabideak? Eraikinek atzeko eraikuntzetan izango duten inpaktuak kezkatzen gaitu.

- Ibaiondon 2,5m alturako kota diferentzia proposatzen da. Beste aukerarik ez al dago?
- Kofradiaren oinarritzko proiektua aurkeztutzat ematen da dokumentuetan. Noiz eman behar dugu gure iritzia; onartutzat eman behar dugu hau ere? Eta Kofradian eraiki ezin badaiteke zer gertatuko da? Kosta zuzendaritzaren erantzunaren zain gaude eta erabaki horrek Dikeko proiektuaren garapena baldintzatu dezake.

PUBLIZITATEA



Portu
Erretsega - Jaitzea

Kazolitat, baserriko oilaskoa,
parrillako errekiak, eguneko menua...

Santio Erreka auzoa, z/g - AIA
943-89 44 34



Sagasti
LEIHOAK

Tel.: 943-13 00 77 - Fax 943-53 71 50
sagasti@sagastileihokak.com
Eusko Gudari, 7
20810 Orio

Roberto Sagasti

Kalitatezko materialak
PVC eta aluminioa · Isolamendu termiko eta akustikoa
Salmenta osteko zerbitzua

www.sagastileihokak.com



BODEGON
Sarasua



info@bodegonsarasua.es | www.bodegonsarasua.com | Erreserbak: 943-83 00 05



Seguros
Bilbao

Santi Barranco
Orioko Ordezkarria


Endaia Enparantza, 1 · ORIO · sbarranco@segurosbilbao.com
943-11 16 00 · 688 71 48 69



URANGA
burdindegia

Opari, menaje eta erremintak

Eusko Gudari, 5 · ORIO · 943-83 12 36




Zarautz

Hileta Zerbitzuak
1962. urtetik zure zerbitzura

24 ordu zure zerbitzura
Beilatokia · Lekualdatzeak ·
Eginbide guztien tramitazioa

Araba kalea 35 · ZARAUTZ
943-89 49 37
info@zarautzhiletazerbitzuak.eus



Orioko
Herri
Ikastola
ORIO GARA

Abeslari kalea, 8
943-83 47 04
Fax-a: 943-13 09 38
orio@ikastola.eus
www.oriokoikastola.eus



Oreaka
fisioterapia

Eusko Gudari, 54 · 943-13 35 37

Ekografia muskulo-eskeletikoa
Eskuzko terapia · Talka-uhinak
Masaje terapeutikoa · Osteopatia



SU
KIA
TABERNA · JAITETXEA

Eguneko menua
Asteburuetakoa
Oilaskoak eramateko
Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Terraza ederra
(alboan umeentzako parkea)

Abaromendi 38, behea 1
ORIO · 943-89 21 29



Zaragueta IPI
HERRI ESKOLA 2-16

943-89 92 43
012137aa@hezkuntza.net

"Adostasunera iristeko jarrera baikorra"

PSE-EE

Abenduaren 23an, Plan Orokorrean Dike eta Kofradia eremuaren aldaketa puntuala egitea onartu zuen udalbatzarrek. Horri esker, konponbidea jarri zaie Orioko hirigintza esparruan dituen arazo nagusiei.

Urte luzez, kofradiaren eta inguruaren egoera txarra kezka iturri izan dira herritarrentzat eta Orioko Udalarentzat. Aldaketari esker, konponbidea eman zaio arazo horri, aurrerantzean kofradia Dike eremuko planean sartuta egongo delako. Hala, bermatuta geratu da

etorkizunean kofradia berria izango den eraikina egitea. Bizia irabaziko du moila inguru horrek, eta eraikinak zerbitzuak eskainiko dizkie herritarrei.

Dike eremua da herrian urbanizatzeko geratzen den azken gunea, eta orain, inguruan urbanizazio moderno bat egiteko aukera izango da. Ibaiondo eta Anibarko Portua hurreratzea da proiektuaren helburua, herriguneari segida emanez. Aldi berean, auzogune berri bat sortuko da, ibaira begira egongo diren zerbitzu eta etxebizitza berriekin.

Hori guztia, akordioa lortzeko lanean jardun duen taldearen, Kofradiaren eta Orioko Udalaren lan bateratuari esker lortu da. Hasieratik, adostasunetara iristeko jarrera azaldu dute alde guztiek, lanerako jarrera serioa, eta zehaztasun handiz bete dira hirigintza legediari dagozkien arau guztiak.

Orioko Udaleko zinegotzi eta lan-prozesu horren parte izan naizen aldetik, eskerrak eman nahi dizkiet Dike eremuko jabeei eta Kofradiari, akordioetara iristeko erakutsi duten aldez aurreko jarrera onagatik.

Lan egitea eta adostasunak bilatzen saiatzea da arazoei konponbidea jartzeko modu bakarra.

"Erabakia interes publikorako ona da"

ORAIN UDAL TALDEA

Buelta asko emanda (milaka orrialde bilduko genituzke aurreproiektuak, proiektuak, aktak, txosten juridikoak, azterlanak, aurkezpenak eta beste hainbeste juntatuta; baita, kalkula ezinezko orduak bileretan, batzordeetan eta batzarretan) 2020ko abenduaren 23an udalbatzarrek Dike-Kofradia eremu ez-jarraiturako Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrearen aldaketa puntualari lehen onarpena eman zion.

Bi eremuak bideragarritasun arazoekin eta egoera zailetan zeudenez, 2017ko ekainaren

23ko Hirigintza batzordean Plan Orokorra eztabaidatzerakoan Kofradia Dikera inkorporatzea aho batez onartu zen. Dikeko Kontzertazio Batzordeak, 2018ko irailaren 27an egindako batzarrean eta jabe guztien adostasunarekin, hitzarmen urbanistikoak aurrera egitea onartu zen. (...) Ondoren, Udalak 2018ko abenduaren 27an, aho batez eta behin betikoz onartu zuen plangintza eta kudeaketako hitzarmen urbanistikoa. (...)

Hainbat esparrutan legezketasun txostenak eskatuta eta beteta, 2020ko uztailaren 16ko Gipuzkoako

Aldizkari Ofizialean Parte Hartzeko Planaren iragarkia argitaratu zen. Arraunetxean erakusketa grafikoa jarri zen uztailaren 21etik abuztuaren 2ra bitartean, eta bertara 200 pertsona inguru hurbildu ziren.

Uste dugu hartutako erabakia interes publikorako ona dela, proiektua aurrera ateratzeko zailtasun handiak zeudelako. Izan ere, kofradia hondamen egoeran deklaratu zegoen eta etxebizitzak ezin baziren egin, ez zeukan bideragarritasun ekonomikorik. Hori dela eta, Dikeko lur jabeek, Kofradiak eta Udalak lortu duten adostasuna goraiatu nahi dugu, irtenbidea eman zaiolako urteetan geldirik egonda etorkizun iluna zuen arazoari. ■■■■



Errusiatik Oriora

MONIKA SEROBIAN IKASLEA

Zein da zure izena?
Nire izena Monika Serobian da.

Nongoa zara?

Errusiakoa naiz, iparraldean dagoen Sochi hirikoa, hain zuzen ere.

Noiz etorri zinen Espainiara? Eta Oriora?

2018. urtean etorri nintzen Kataluniara, 2019. urtean Kordobara joan nintzen, eta 2020. urtean Oriora iritsi nintzen.

Hemengo eta Errusiako ohiturak berdinak al dira?

Bai, antzekoak dira, ez dago desberdintasun handirik.

Zein da desberdintasun handiena?

Jendearen izaera: hemengo jendea atseginagoa eta adeitsuagoa da. Errusiarrak nahikoa hotzak baikara.

Zer da gehien botatzen duzuna faltan Errusiatik?

Nire etxea da gehien faltan botatzen dudana.

Zer da Oriotik gehien gustatzen zaizuna?

Mendiz inguratuta dagoela, ni bizi nintzen tokitik mendiak urrun geratzen baitziren.

HARRERA ONA EGIN DIDATE. HORREGATIK, HEMEN LUZAROAN GERATZEKO ESPERANTZA DAUKAT



Telebistan azaltzen den bezainbesteko hotza egiten al du Errusian?

Errusiako iparraldean bai, baina ni bizi nintzen hirian ez. Nire hiriko klima eta hemengo antzekoak dira.

Zein da hango jaki tipikoa?

Borsh izeneko zopa gorria, barazkiz egindako zopa bat.

Nolakoak dira Errusiako eskolak?

Hango eskolak 12:00etatik 17:00etara izaten dira.

14:00etatik 15:00etara bazkaltzeko ordua izaten genuen, eta ikasle guztiok batera bertan bazkaltzen genuen. Ez zegoen etxera bazkaltzera joateko aukerarik, hemen bezala.

Zer moduz ari zara moldatzen Zaraguetan?

Ondo moldatzen ari naiz, baina euskararekin, momentuz, zailtasunak ditut. Egia esanda, gelakideek eta irakasleek harrera ona egin didate. Horregatik, hemen luzaroan geratzeko esperantza daukat. ■■■

Ziberjazarpenaren aurka

Ziberjazarpena aparatu elektronikoetatik sortzen den jazarpena da. Guri ez zaigu gustatzen inongo jazarpen motarik; inork ez du merezi jazarpena jasotzerik.

Eraso hauek jasaten dituzten gehienak gazteak dira. *Epdata.es* webgunearen arabera, Espainiako ikasleen %6k ziberjazarpena jasaten dute. Gazte horiek, kalean onak direla antzezten duten arren, gero etxean mugikorra hartu eta jendeari min ematen diote, beren irain eta hitz itsusiekin.

Jose Antonio Luengok, eskola jazarpena ekiditeko taldeko kideak, esaten duenez, ziberjazarpena heziketa faltagatik sortzen da. Hori dela eta, egoera hau saihesteko gazteei gai honen inguruko informazioa eman behar zaie. Izan ere, esaera zaharrak dioen bezala, gaztea nekez da gaiztoa.

Ziberjazarpena aparatu elektronikoetan garatzen da, bereziki, sare sozialetan. Adibidez, Facebook plataforman, 10 urteko neska batek talde bat sortu zuen bere gelakide bat umiliatzeko.

Honako datu hauekin argi eta garbi ikus dezakegu egoera onartezina dela eta, ondorioz, ez dugula onartu behar. Horrelako egoeran bazaudete, laguntza eskatu eta gurasoei kontatu egoerak okerrera egin baino lehen! ■■■

Ederrak garaiak bizirik egoteko



ELI HUEGUN

Joan da 2020.urtea. Hasiera eman genionean bateren batek esan izan baligu Txinatik zetozen albiste haiek gurean ere gertatuko zirela, herrian tonto berriak izendatuko genituzkeen. Nolanahi ere, gertatu da, eta errealitatea tontotzat gizakiak hartu gaitu, nonbait. Pla! Muturrean.

Gutariko bakoitzarentzat desberdina izan da urte hau, zalantzarik gabe, eta adjektibo bakarrera mugatzea atrebentzia litzatekeen arren, txarra izan dela esan dezakegu, orokortuz. Horren harira, txio bat irakurri nuen duela egun batzuk, atzean utzi dugun urte hau beste batzuekin alderatuz zenbateraino den txarra konparatzen zuena.

Sufrimendua mailakatzea ez da zuzena ez justua, norberak berea daukalako, baina egon dira garai batzuk, gudak albo batera utzita, benetan beltzak izan direnak. Batzuk, literalki.

1349.a izurrite urtea izan zen, Izurri Beltzarena, hain zuzen. 1347 eta 1353 bitartean eragin zuen, baina urte hartan egin omen zuen txikiziorik handiena. Adituen kalkuluen arabera, Europako populazioaren erdia hil zen gaitzak jota, baina merkataritza gune garrantzitsuenetan sarraskia are handiagoa izan zen; Florentzian, esaterako, biztanleriaren %80 hil ziren. Hori gutxi ez balitz, gaitzaren errua judutarrei egotzi zitzairen, eta milaka izan ziren erailak eta erbesteratuak.

1520. urtean izurriteen hondamendia hasi zen, kasu honetan, Amerikan. Nafarrerria, baztanga edo biruela, nahi bezala deitu, eta Mexikoko populazioa 22 milioitik 14ra jaitsi zuen urte gutxiren buruan. Hala ere, izurriteen lehenengoa baino ez zen izan, hurrengo hamarkadetan Europatik iritsitako kolonizataileek bestelako gaixotasunak eraman baitzituzten eta, 1620. urterako, 1,6 milioi indigena baino ez ziren geratzen Mexikon.

Ia mila urte lehenago, 536. urtean, Islandiako sumendi baten erupzioak 18 hilabete osoz eguzkiaren izpiak itzali omen zituen Europan. Horren ondorioz, hurrengo hamarkada azken 2.300 urteetako hotzena izan zen, eta Europa, Asia eta Afrikako uztak galdu ziren, gosetea eraginez. Hurrengo urteetan izurri bubonikoa agertu zen, eta Inperio Bizantziarrean, adibidez, biztanleriaren erdia hil zuen. Horrek guztiak geldialdi ekonomikoa eragin zuen, eta badirudi 640. urtera arte, ez zela aurrerakadarik egon.

2020.ak ez dakit gozori izan duen, baina historian izan dira gizateriarentzat urte gaziak. ■■■

1347 ETA 1353 URTEEN ARTEAN EUROPAKO POPULAZIOAREN ERDIA HIL ZEN IZURRI BELTZAREN ONDORIOZ



JOSEBA BRIT

Amor Fati

Egunerokoan eta bizitzan gertakari eta ezusteko ugari izaten ditugu. Gutako bakoitzak, ordea, desberdin erreakzionatzen du horien aurrean.

Hona hemen adibide batzuk: Autoan goazela baten batek zirt-zart batean aurreratu gaitulako haserretu, bozina jo eta erdiko hatza altxatzea. Bikoteari, afalostean, beste behin ere buruko mina duelako, kamamila bat egin eta maite zaitut esatea. Erosi nahi dugun etxea beste baten eskaintzagatik galdu dugulako, sakon arnastu, eta guretzako ez zela sinistea. Lantokian, azken proiektua sekula baino hobeto egin arren, nagusiak ezer esan ez digulako lana uztea pentsatzea. Hiru astez etxean sartuta egon behar eta, aspalditik irakurtzeke nituen bi liburu horiek

irakurtzeko aukeraz poztea. Hilabeteak lasterketa baterako entrenatzen jardun ostean, bertan behera gelditu delako, hurrengoan azkarrago izateko aukera izango dugulakoan plana egitea. Oraintxe bertan zerbait nola egin ez dakigulako inoiz jakingo ez dugula sinistea. Lana ustekabeen galdu ostean, familiarekin aspaldian gozatu gabeko asteburu pasa egitera joatea. Imprimagailua berriz ere paperarekin ito delako, guztiz kontrola galdu eta

**ERANTZUNAK GURE
ESKU DAUDE,
GERTATZEN ZAIGUNA,
BERRIZ, EZ. HORIXE
GURE ASKATASUNA**

ukabilla estutuz kolpe batzuz zigortzea madarikatu hori. Bizikletan auto baten kontra sekulako istripua izan eta mina bakarrik dugulako zorionez negar egitea. Ex-ak diru denak bereak direla eta, abokatueta borrokan ibilita etorkizuneko itxaropen den-denak galtzea. Azkenean gustuko dituzun zapatak nahi dituzun kolorean ez daudelako, "hau ere niri gertatu behar" pentsatzea. Ospitaleako larrialdietara joan eta hiru orduz itxaron behar bada ere, larriago daudenei lehentasuna ematen diotela eskertzea. Burtsa %12 erori delako, goiz batean inoiz erretiratuko ez garela marru eginez bizilagun denei jakinaraztea. Lagun batek beste behin ere azken momentuan gure planak bertan behera utzi dituelako lagun txarra dela

HAUXE BAI JENEROA!



pentsatzea. Hainbeste denbora kontzertu baten zain egon ostean, atzeratu egin dela eta, bikoteari gau erromantiko batekin sorpresa ematea. Asteburua behingoz iritsi arren, euria ari duela eta, azken hilabeteetan jantzi gabeko arropak poltsa batean sartu eta dohaitzan ematea. Hegazkinean aldamenen pertsona gizen batek toki pixka bat kentzen digulako, pertsona gizen guztiak gorrotatzea hegaldiak irauten duen bitartean. Bikoteak adarrak jarri dizkigulako, bikote hobe bat gure zain dugula sinistea, irribarre lasai batez. Lankidearen akatsagatik proiektua atzeratu delako, lankideari besarkada bat eman eta elkarrekin aurre egitea proposatzea. Telebistako serie bikain horrek amaiera eskasa

izan duelako, serie osoa *kaka* bat zela esatea. Bikote berri batek utzi gaituelako ezer balio ez dugula sinistea. Azkenaldian galduta sentitu ostean, hegaldi bat erostea, inongo planik gabe beste herrialde batean galtzeko. Ustezko pertsona maite batek aspaldian deitu ez gaituelako guk berari ez deitzea. 40 urte bete eta belaunak ahulduta ditugulako, lehenengo maratoian izena ematea. Presaka izan arren atzean dagoen amonari aurretik pasatzeko eskatzea. Autoan gure irteera pasa eta gustuko album bat entzuten hastea.

Gautza batzuk gure kontrolpean daude, eta beste batzuk ez. Ematen ditugun erantzunak gure esku daude, gertatzen zaiguna, berriz, ez. Hortxe gure izaera eta askatasuna. ■■■

NIRE HONETAN



IÑIGO GAITON


Handien bazka

Herriko surflari batek parapente-zalea erreskatatu zuen urtarrilaren 10ean, hondartzako harrobi aldean. Nahikoa azkar izan nuen gertaeraren berri, eta berehala hurreratu nintzen haraino. Lekuko izan zirenekin hitz egin nuen aurrena, ertzainekin gero, eta parapente-zale pare batekin ere bai. Albistea idazten hasi aurretik, surflariari ere telefonoz deitu nion. Jarraitu aurretik, besarkada bat bidali nahi diot hemendik, laguna dudalako eta egun hartan lan bikaina egin zuelako.

Istripua gertatu eta gutxira, albistea Karkararen webgunean argitaratu nuen: dozena erdi bat foto eta hiruzpalau paragrafoko testua, ezbeharraren berri modu argian emanez. Kito.

Hurrengo orduetan eta egunetan, EITBk hiru alditan elkarrizketatu zuen surflaria: gaueko Teleberrian, *Biba Zuek!* programan eta Euskadi Irratian. Gero, *El Diario Vasco*-k egunkariko atzeko azal osoa eman zion gertaerari — *Un heroe encima de una tabla de surf*— eta asteartearrekin, Telecinco-koak herrian ziren, surflariaren arrastoari segika.

Ez dakit zer egiten duen hedabide bat handi. Badakit, ordea, zer bazka behar duten batzuek *handitasun* horri eusteko, eta nik ez dut horien plater beretik jan nahi. ■■■



KARKARA LAGUNTZAILE

Zuen beharra izaten jarraitzen dugu. Babestu Km0 hedabideak.



Egin zaitez bazkide!

Bazkide egiteko: bazkide@ukt.eus • 688 85 96 82

NON DAGO KARKARA?



Miren Arostegi Karkarako bazkidea da Zuberoko saskia irabazi duena.



Karkara pertsonaia aldizkariaren zein orrialdetan dagoen ezkatututa aurkitu behar da, eta erantzuna karkara@karkara.eus e-posta helbidera bidali otsailaren 15a baino lehen. **Saria:** K5 txakolin kaxa bat. Karkarako Komunikazio Taldean bazkide izatea da baldintza bakarra.



Igeriketa: errespetua bai, beldurrik ez



TESTUA: AMAIA ARTEAGA

Urez inguratuta sortzen, hazten eta jaiotzen gara. Behin mundu honetara iristen garenean, ordea, kaleko lurzoru gogorrean edota etxeko alfonbra goxoan ditugu hankak normalean, baina igerilekura, hondartzara edota gure herriko moilara salto eginez gero, ingurua asko aldatzen da.

Egun, ohikoa da haurrak txikitatik igerian ikastera eramatea, askori entzun diet: “Bizi garen lekuan beharrezkoa da behintzat flotatzen ikastea”. Ez dut esango esaldi horrek gezurrik dioenik, baina igeriketa jarduera fisiko osatuenetakoa dela aipatzea ere beharrezkoa iruditzen zait. Bihotz-biriketako sistema indartu eta koordinazio motorra hobetzeaz gain, onura psikologiko handiak baititu.

Gure txikiek igerian ikastea beharrezkotzat jotzen dugu, eta edozein egoeratan laguntza behar izanez gero helduok gai al gara ezohiko ingurune horretara salto egiteko? “Adin honetan hankak lurrean izatea hobe” izan ohi da beste esaldi bat. Azkenaldian askotan entzun ditugu Munduko Osasun Erakundearen albisteak eta aholkuak; orain dela gutxi kirola edozein adinetan egitea gomendatzen zuen artikulu bat



irakurri nuen. Beste kirolek bezala, igeriketak balio dezake gure osasuna hobetzeko eta azken urte honetan bizi dugun egoerak sor ditzakeen antsietatea eta estresa gainditzeko.

Urari beldurra dion norbait datorrenean, lehenik eta behin uretan lasai egoten erakusten diogu, horretarako beharrezko materiala eskainiz. Errespetua bai, beldurrik ez. Pixkanaka

IGERIKETAN OSO GARRANTZITSUA DA POSIZIO HIDRODINAMIKOA

ingurune horretara ohitzen doan heinean, arnasketa lantzen hasten gara; askotan zailtasun gehien ematen dituen puntua izaten da hori, eta lehen esan bezala lasaitasuna beharrezkoa da. Hori lortutakoan, ikasi nahi duen estiloaren araberako teknika lantzen dugu. Estilo bakoitzak bere modua du, baina guztietan posizio hidrodinamikoa oso garrantzitsua da –nire ikasleentzat fletxa–. Beste edozein arlotan bezala, igeriketan ere pazientzia eta konstantzia beharrezkoak dira, baina ezinezkorik ez dago.

Nire etxean dioten bezala, ez utzi biharko gaur egin dezakezuna! ■■■



arkitektura www.xsarkitektura.com
herrikobarra, 11 behea • ZARAUTZ • 943-13 43 58

eraikuntza zerbitzuak
eraikinen mantenua
errehabilitazioak
proiektuak
txostenak
ITE-ak
obrak




ZINKU

ERAIKUNTZAK



- Igeltserotza orokorra
- Etxebizitzen erreformak
- Teilatuak
- Sukalde, komunak, etb.
- Eraisketak

*deitu eta eskatu aurrekontua
konpromisorik gabe*

Ander Zinkunegi
667 74 02 79



Sinergia
fisioterapia eta ikerkuntza

lbai ondo, 1 behea • ORIO
943-13 05 77 • 685 71 85 95
sinergiafisioterapia.com •  

- **Lesioak:** bihurdurak, tendinitisiak, zaintiratuak, kontrakturak, hanka handituak, artrosia, kirurgia osteko birgaitzea, bizkar hezurreko arazoak, arnas gaixotasunak haur eta helduetan, lesio neurologikoak, haurdunaldirako tratamendu bereziak, erditze ondorengo errekupeazioa.
- **Tratamenduak:** terapia manuala, osteopatia, masajeak, drainatze linfatikoa, arnas fisioterapia, kinesoaping-a, pilates, abdominaletako gimnasia hipopresioa (GAH), REDCORD.



BIYONA

BARNE DISEINUA ETA ERREFORMAK | INTERIORISMO Y REFORMAS

etxea sukaldeak
bainugela ...
leihoak
etxeko altzariak

eraberritzekotan?



Bisita gaitzazu

 Geltoki bidea, 1 • ZARAUTZ •  943-13 50 16 • www.biyona.net

Txalo Arkuperi!



TESTUA: JABIER ZABALETA

Herriko dendari eta tabernariak biltzen dituen Arkupe elkarteak euskara hutsean atera du, lehenengo aldiz, aurtengo Gabonetako kanpainaren kartela.

«Normala!» esango duzue askok eta ez dizuet arrazoirik kenduko, niri ere halaxe behar duela iruditzen zait-eta. Lehen aldia izan da aurtengoa, hala ere, eta horrek erakusten du kontua ez dela, beharbada, horren «normala», horren ohikoa.

Txalo, beraz, Arkupe elkartekoei, pausoa emateagatik.

Orioko talde eta elkarte gehienek, salbuespen gutxirekin, euskara hutsean egiten dituzte beren kartelak, oharrak eta komunikazioak. Oriotarrak ohituta gaude horretara. Dendari eta tabernari batzuen artean, ordea, errezeloa sortu izan du gaiak: «Eta nire bezero erdaldunek zer esango dute?», «Eta baten bat haserretzen bazait?».

Errezelo horiek ez daukate oinarri handirik, euskaraz ari

diren merkatarien eguneroko praktikak erakusten duenez. Udaleko Euskara Zerbitzuak urteak daramatza herriko dendari eta tabernarientzat euskarazko kartelak, oharrak, prezio-zerrendak, menuak eta abar prestatzen eta ikusita dago horiek euskaraz egiteak ez duela sortzen kontrako erreakziorik hemen, baizik-eta alderantziz: herritarrok eskertzen dugun aurrerapausoa da, nahi dugun Orio euskaldun eta kohesionatuaren aldeko apustua delako.

Komplexurik gabe euskaraz

Euskaraz konplexurik gabe egiteko garaia da. Gaur egun, euskaraz ez dakienak ere eskura ditu patrikan hiztegiak eta

**ARKUPEK EUSKARA
HUTSEAN ATERA DU,
LEHENENGO ALDIZ,
GABONETAKO
KANPAINAREN KARTELA**

itzultzaile neuronalak, besteak beste, edozein mezu, ohar, zerbitzu-eskaintza, menu eta abar arazorik gabe ulertu ahal izateko. Orion, gainera, guztiok daukagu inguruan nori galdetu zer bait ulertzen ez dugunean: lagunak, seme-alabak, iloba euskaldunak... Ez dago arrazoirik batere oriotarrei mezuak euskaraz ez eskaintzeko; eta oriotar gehienok hala jaso nahi ditugu, gainera.

Oraindik euskara ikasi ez duten oriotarrek ere normaltasun handiz bizi dute gure paisaia linguistikoa euskarazkoa izatea, kalean nahiz komertzioetan. Badakite non bizi diren eta gustatuko litzaieke euskara jakitea, herriaren bizitzan hobeto integratzeko. Guztia gaztelaniaz eskaintzen badiegu, ordea, aukera kentzen diegu euskara ikasteko eta euskararen bidez bertakotzeko.

Euskaldunok aspaldian egin genuen bidea egin behar dute erdaldunek pixkanaka: hurkoaren hizkuntza ikasi eta estimatu. Eta nekez egin ahal izango dute bakarrik. ■■■

Oriaren XXVII. Traineru Jaitsiera atzeratu egin dute eta martxoaren 21ean jokatu da



Orioko traineru jaitsiera.

Orio Arraunketa Elkarteak jakinarazi du atzeratu egin

duela otsailaren 13an jokatzekoa zen Oriaren XXVII. Traineru Jaitsiera. Horretarako, izurriteak azken egunetan izan duen bilakaera aintzat hartu du elkarteak, eta osasun publikoari lehentasuna eman nahi izan dio. Hala, erabaki dute proba jokatzera martxoaren 21ean, 10:00etan. Dena dela, argitu dute egun horretan egin ezin bada, bertan behera geratuko dela.

Orioko arraunketa elkarteak azaldu du probaren helburu

nagusia dela "neguko prestaketa egiten ari diren arraunlari eta elkarten progresioa testatzeko aukera izatea". Horregatik, COVID-19ak sortutako egoera dela eta, aurrean partaidetza murriztea erabaki du elkarteak, eta parte hartu ahal izango dute Gipuzkoako Eusko Label, Eusko Tren-ETE eta KAE ligetako taldeek. Emakumezkoen ontziek 4.000 metroko ibilbidea osatu beharko dute eta gizonezkoen taldeek 6.000 metro. Jaitsieran parte hartu nahi duten ontziek martxoaren 15era arte izango dute irekita izen-emateko epea.

Zigor Gazpio, Euskadiko Arraun Federazioaren lehendakartzarako hautagaien artean

Otsailaren 26an bukatu zen Euskadiko Arraun Federazioaren lehendakartzarako hautagaitzak aurkezteko epea. Bi kandidatura izan dira; batetik, Getxo Arriluze AKK-ko Iñaki de Ibero eta, bestetik, Orio Arraunketa Elkarteko Zigor Gazpio. Bi hautagaitzak onartu dituzte, hortaz, bien artean aukeratuko dute Euskadiko Arraun Federazioko lehendakari berria.

Gazpiok azaldu duenez, "arraun munduko hainbat lagunek" proposatu zioten hautagai aurkezteko, baina "ezezko borobila" eman zuen behin eta berriz. "Asteartean amaitzen zen epea, eta astelehen goizean ezezkoan nengoen oraindik. Astelehen arratsaldean zalantzak nituen

eta, asteartean bertan, baiezkoa eman nuen".

Otsailaren 1ean ekin zioten kanpainari. "Behin aurkeztuta, orain gogoz heldu diot kanpainari, eta aurrera egingo dut", dio Gazpiok. Izatez otsailaren 8rako zegoen finkatuta botoa emateko eta lehendakari berria aukeratzeko eguna, baina COVID-19a dela eta, kolokan dagoela azaldu du oriotarrak. Baliteke, beraz, bozketara atzeratzea.

Aurretik Gipuzkoako Arraun Federaziorako lehendakari izateko ere aurkeztu zen Gazpio. Euskadiko Federaziora dagokionez, aipatu du, haren iritziz, aulki mugikorren arloan egongo litzatekeela erronka nagusietako bat. Helburutzat jotzen, besteak beste, aulki mugikorretako jarduna



Ibon Huegun eta Zigor Gazpio.

sustatzea eta hauspotzea, bai eta arlo hori "ondo antolatzea" ere: "Gipuzkoan aritzen dira aulki mugikorrean, Bizkaian ere bai, baina nolabait kohesioa falta dela uste dut".

'Najat' sukaldaritza liburua argitaratuko du Kaanachek

2019an Herbehereetako bigarren libururik onena izendatu zuten Najat Kaanacheren 'Najat' liburua, eta Europan arrakasta lortu ondoren, otsailaren 3an izango da salgai Hego Euskal Herriko dendetan. Planeta Gastro argitaletxearekin elkarlanean atera du liburua, eta errezetetz gain, kontakizunak eta argazkiak ere bildu ditu, Marokoko sukaldaritza, arkitektura, paisaia, jendea, ondare gastronomikoa ezagutarazteko asmoz.

Marokoko produktuak dira Kaanacheren sukaldaritzaren oinarria, "marokoarrek lantzen dituzten lehengaiak". Izan ere, "oso garrantzitsua" iruditzen zaio Marokoko nekazariek eta arrantzaleek mendeetan zehar jaso duten teknika eta jakinduriari balioa ematea, "horien emaitza baitira ekoizten dituzten lehengaiak. Produktu horiek transformatzen ditugu arbasoek



'Najat' liburua azala.

erabiltzen zituzten teknika desberdinak erabiliz: erre, ondu, keztu,..", azaldu du.

Ibilbide oparoa

Kaanachek munduko jatetxerik garrantzitsuenetan lan egin du eta gaur egun Fez hiriko Medinan du Nur izeneko jatetxea. 2016an ireki zuenetik, nazioarteko hainbat sari ere jaso ditu. Adibidez, Afrikako jatetxerik onena eta mundu mailako marokoar jatetxerik onena izendatu zuten. Aurkezpen



Najat Kaanache.

berritzailea dute bere sorkuntzek eta sukaldaritza arte diziplina bat dela ulertzen du sukaldariak. "Saiatzen naiz plateren bidez Marokoko zapoak, lurrinak eta koloreak azaltzen; zer eta nola adierazi nahi dudana hausnartzen dihardut etengabe. Lanbide soila baino gehiago da sukaldaritza niretzat, bizimodua da. Horrez gain, nire sukaldaritza politika egiteko modua ere badela ulertzen dut, ez da sabela betetzeko, arima elikatzeko baizik", adierazi du.

Olatz Zugastik kantu berria plazaratu du: *Mairu baratzetan*

Lehengo ostiraletik, entzungai dago plataforma digitaletan Olatz Zugastiren abestia. *Mairu baratzetan* izena jarri dion piezarekin, musikariak haurtzarora salto egin du, uda garaian Aranon, aitona herrian, egiten zituen egonaldietara. Orduko giroa islatu du balkandar kutsu handia duen piezan: oihiak,



usainak, mairu baratzetara egingako bisitak, menditar eta

hiritarren arteko harremana...— Ukraniako doinu tradizional baten moldaketatik abiatuta sortu du kantua.

Musikariaren hitzetan, aspalditik izan du buruan gaiaren gaineko abestiren bat egiteko ideia, eta orain, nahi bezala gorpuztea lortu du. Grabaketa prozesuan, Zugastik berak sartu ditu instrumentu guztiak —harpa eta gitarra zuzenean, eta gainontzekoak midi teklatuaren bitartez—. ■■■

S	T	I		A	L
	O				S
L			T		I
	I	O		L	
I		T	A		
		A		I	T

Otsaileko Sudokua

Bete lauki zuriak OTSAIL hitza osatzen duten letrak kontuan hartuta (O, T, S, A, I eta L). Gogoratu, hizki bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.

Jesus, Maria eta Jose

NESKA-MUTILAAA...!



Handitik txikira



Ordena itzazu freskagarri hauek neurriaren arabera. Handienari 1 zenbakia eman eta txikieneri 6.

Margotu



engainaria

Bost zati hauetatik bakarra dago margotu behar duzun irudi horretatik hartuta. Zein da? Margotu ezazu zati hori ere.



Beti JAN eta beti gose

MAHAIAN DAGOEN EZER
EZ UKIT !


GONBIDATUAK
DITUGU ETA



Erreparatu ongi irudi hauei. Hau da kuxidada! bi minututan dena lardaskatu dute (esnea isuri, ketchupa bota, arrautza bat puskatu...), eta jan ere egin dute. Konturatzen al zara zer jan duten? Begiratu ongi eta asmatuko duzu.



DutXara!

Osatu lauki zuri bakoitzari dagokion irudia, honoko domino zati honek zentzua izan dezan.



Zu bai Hamalau!

Aurki itzazu bi irudien artean dauden aldeak. Hamalau dira guztira.



Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eus/

IRAGARKI SAILKATUAK

ALOKAIRUA

Logela alokagai. Etxebizitza berria eta logela handia, ohe handiarekin, mahaiarekin eta armairuarekin. Etxeak 30 metroko terraza du. Tel.: 652 55 15 50.

Garaje itxia alokagai. 25 metro karratu ditu, eta sar-bidea Palota kaletik. Kokapen oso ona, Niko tabernaren parean. Prezioa: 110 euro hilean. informazio gehiago: 661 87 88 76.

Autokarabana eta karabantzat plazak alokagai, garaje estalia eta beharrezko ekipamentuarekin. Aia-Orio. 620 85 69 53 (goizez).

LAN BILA

Ume zaintzan lan egiteko prest dagoen neska oriotarra naiz. Tel.: 676 44 13 27.

Emakume gazte bat lan bila. Pertsona helduak eta haurrak zaintzeko prest eta baita garbiketeta lanetarako ere. Berehala lanean hasteko moduan. Tel.: 642 69 60 38.

Emakume venezuelar bat bere zerbitzuak eskaintzeko prest. Jende helduarekin ospitalean egoteko prest, egunez eta gauzez. Tel.: 688 61 04 52

Lan bila nabil, etxe garbiketak egiteko prest. Tel.: 641 44 60 70.

Lan bila nabil etxe garbiketak eta haurrak zein helduak zaintzeko. Orduka lan egiteko. Tel.: 643 66 23 89.

Etxeko lanak egiteko edo zaintzan lan egiteko prest nago. Tel.: 631 82 44 52.

Neska arduratsua lan bila dabil. Barneko zein kanpoko langile bezala adineko pertsonak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest. Karlene. Tel.: 631 87 86 59.

Lan bila dabilen emakumea naiz. Bikaina naiz haurrak zaintzen, eta garrantzi handia ematen diot garbitasunari eta txukuntasunari. Arduratsua naiz, eta arreta handia jartzen dut nire lanean. Berehala lanean hasteko prest nago. Tel.: 602 08 98 86.

Etxeko eta zaintza lanak egiteko prest nago. Esperientzia dut eta arduratsua naiz. Lanerako gogoz nago. Wendy. Tel.: 612 46 42 43.

Lan bila nabilen neska bat naiz. Haurrak edo adineko pertsonak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest nago. Barneko zein kanpoko langile bezala, edo orduka. Esperientzia eta erreferentziak ditut. Samanda. Tel.: 643 85 78 54.

Neska euskalduna naiz eta lan bila nabil. Udaran umeak zaintzeko eta etxeko lanetan laguntzeko prest nago. Arduratsua naiz eta oso alai, eta umeekin esperientzia ere badaukat. Berehala lanean hasteko moduan naiz. Harremanetarako kontaktua: 656 73 51 03

Orion astelehenerdik ostiralera haurrak (6-12 urte) zaintzeko bere burua eskaintzen du 17 urteko gazte arduratsua. Ekainaren 1etik aurrera hasteko aukera. Uztailaren 15a arte. Orduetgia: 9-13h (haurreko/eguneko 10€). Aukera ere bazkalteen emateko, 9-15h (haurre-

ko-eguneko 15€). Gehienez 3 hurrez osatutako taldea. Julen. Tel.: 688 62 45 73.

Orion, batxilergoko lehen urtea amaitu berri duen gazteak bere burua eskaintzen du klase partikularrak emateko, bai ikasturte amaierari begira, baita udarako errefortzu gisa. 9-12 urte bitarte. Ekainaren 1ean hasteko aukera. Orduko 8€. Julen. Tel.: 688 62 45 73.

Aiako 17 urteko neska, Orioko baita Aiako umeak zaintzeko prest, ordutegi malguarekin. Haurrekin esperientzia duena. Saioa. Tel.: 672 19 49 94.

Emakumea adineko pertsonak zaintzeko edo orduka lan egiteko prest. Harremanetarako deitu honako telefono zenbakira: 697 65 05 19.

LAN ESKAINTZA

Langile baten bila gabiltza pertsona heldu baten zaintza eta etxeko lanak egiteko. Derrigorrezkoa da gidatzeko baimena eta paperak edukitzea. Tel.: 656 73 55 19.

13 urteko semeari klase partikularrak emango dizkion pertsona baten bila nabil, batez ere ingeleseko eskolak. Harremanetarako deitu: 609 54 51 62

ETXE BILA

Familia bat gara. Hiru gela dituen etxe baten bila gabiltza. Tel.: 661 33 11 13.

Neska oriotar bat etxea alokatu nahian. Tel.: 677 28 95 21.

SALGAI

Olaciregi txipironera salgai. Suzuki DFIS motorra. Abendura arte aseguru ordaindua du. 3.500 euro. Tel.: 657 77 45 11.

BESTELAKOAK

Land Rover Defenderra erosi nahiko nuke, berdin du zer egoeratan dagoen: ITVA pasa gabe, kolpeekin, aberiatuta... Tel.: 623 17 95 37.

Garaje itxi bat erosi nahiko nuke kotxe bat sartzeko tokiarekin. Herri erdialdean edo goiko kalean. Tel.: 666 18 41 69.

Portugeseko ahozko mintza praktika hartu nahiko nuke ingelesaren edo euskararen truke. Tel.: 691 34 48 56.

Orion bizi den familia bat autokontsumorako baratze ekologiko bat egiteko lurzoru baten bila dabil alokairuan Orion edo inguruan. Tel.: 657 71 96 14.

Bigarren eskuko mountain bike bizikleta erosiko nuke. Interesatuak, idatzi edo deitu KARKARARA.

Surf taula beltz bat galdu nuen Orioko Surf Taldearen lokalaren inguruan. Taula beltz kolorekoa da, eta ertzak kolore bizikoak ditu. Inork bilatu edo hartu badu, eskertuko niok telefono honetara deitzea: 615 78 42 12. Aitor.

MAILAN (Tren-geltoki atzealdean). Jantokiko antzinako altzariak, kaobazkoak, kalitate handikoak. Aukera ona. Deitu: 943 -89 03 45 edo 669 78 19 63.

Tren geltokiaren atzean mendi-bizikleta bixi bat topatu dugu, botata. Galdu duenak deitu deza telefono honetara: 943-13 01 56, bizikleta berreskuratu nahi badu.

ITSASOA

Eguna	Itsasgora	Itsasbehera	Ilgaria
1	06:44 eta 19:10	00:26 eta 12:57	☉
2	07:28 eta 19:55	01:09 eta 13:41	☾
3	08:15 eta 20:45	01:55 eta 14:29	☾
4	09:09 eta 21:45	02:47 eta 15:24	☾
5	10:14 eta 22:58	03:48 eta 16:30	☾
6	11:37	05:01 eta 17:48	☾
7	00:20 eta 13:04	06:24 eta 19:08	☾
8	01:35 eta 14:16	07:42 eta 20:14	☾
9	02:37 eta 15:13	08:46 eta 21:08	☾
10	03:28 eta 16:00	09:37 eta 21:53	☾
11	04:13 eta 16:41	10:21 eta 22:34	☾
12	04:53 eta 17:17	11:01 eta 23:13	☾
13	05:29 eta 17:50	11:37 eta 23:49	☾
14	06:04 eta 18:22	12:12	☾
15	06:38 eta 18:53	00:24 eta 12:46	☾
16	07:11 eta 19:24	00:59 eta 13:20	☾
17	07:45 eta 19:59	01:34 eta 13:54	☾
18	08:22 eta 20:39	02:12 eta 14:32	☾
19	09:07 eta 21:31	02:55 eta 15:18	☾
20	10:08 eta 22:47	03:52 eta 16:20	☾
21	11:34	05:12 eta 17:44	☾
22	00:17 eta 13:01	06:41 eta 19:06	☾
23	01:30 eta 14:05	07:50 eta 20:06	☾
24	02:25 eta 14:53	08:41 eta 20:52	☾
25	03:09 eta 15:35	09:23 eta 21:32	☾
26	03:48 eta 16:13	10:01 eta 22:10	☾
27	04:26 eta 16:50	10:38 eta 22:48	☾
28	05:05 eta 17:28	11:16 eta 23:26	☾

FARMAZIAK-OTSAILA

ZARAUTZ

4 eta 22.	ETXEERRIA: Gipuzkoa kalea, 17 / 943-83 23 98
9 eta 16.	ESPARZA: Santuturri plaza, 5-6 / 943-50 47 83
5, 10, 12, 17, 23 eta 26.	GALLO: Zigorria kalea, 17 / 943-13 40 19
1, 11, 27 eta 28.	GARMINDE: Gipuzkoa kalea, 68 / 943-12 40 19
20 eta 21.	IRIARTE: Zinkunegi, Pilarxo Enea / 943-13 29 70
3, 15, 19 eta 25.	ITURRIA: Kale Nagusia, 12 / 943-83 29 70
2 eta 8.	LARRAÑAGA: S. Frantzisko, 16 / 943-13 38 14
6, 7, 18 eta 24.	REDONDO: Urdaneta kalea, 8 / 943-13 31 83
13 eta 14.	ZULAIKA: Bizkaia kalea, 41 / 943-13 39 94

Iragarkietarako bokoa. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943-83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

Kultur agenda, atzera

TESTUA: ORIOKO UDALA

Pandemiaren egoerak okerrera egin du Orion azken egunotan eta, urtarrileko azken asteko datuak kontuan hartuta, Udalak hainbat erabaki hartu ditu herritarren segurtasuna zaintzeko. Elkar zaintzeko garaia da eta Udalarari arduraz eta zentzuz jokatzeko dagokio, egoera kontrolatzeko eta lasaitasuna transmititzeko.

Neurri hauek hamabost egunez izango dira indarrean, urtarrilaren 29an hasita; eta, ondoren, Udalak baloratuko du nola jokatu, egoeraren eboluzioaren arabera.

Hauek dira Udalak hartu dituen neurriak:

- Udalaren esku dauden kirol eta kultur instalazioak itxia: kiroldegia, kultur etxea, musika-eskola, euskaltegia, ludoteka, gaztelekua, arraunetxe, pilotalekua, kirol eta kultur elkarten lokalak...

- Instalazio horietan ematen diren zerbitzuak, ahal den neurrian, modu telematikoa eskaintzen segitzea. Hori posible ez den kasuetan, Udalak aurrerago erabaki eta jakinaraziko ditu zerbitzuak ez emateagatik aplikatu daitezkeen konpentsazioak.

- Kaleko igogailuek martxan segituko dute orain arte bezala, baina areagotu egingo dira erabiltzaileentzako segurtasun-neurriak.

- Haur-parke guztiak itxia (ikastetxeetako edo inguruko haur-parkeak erabilgarri izango dira eskola-orduetan, baina itxita egongo dira gero, eta asteburuetan ere bai).

- Merkataritzan, berriro aztertuko dira zenbait establezimendutako aforoak eta, horrez gain, dei berezia egingo zaie herriko merkatariei segurtasun-neurriak zorrotz betetzeko (distantziak, hidrogela...)

- Osteguneko azokarik ez da egingo bi asteetan.

- Otsaileko eta martxoko kultur ekitaldiak atzeratzea. Agenda berrantolatzen ari da Udala. Esate baterako, bertan behera geratu zen otsailaren 29an Arraunetxan egitekoa zen Jon Gurrutxagaren eta Urbil Artolaren kontzertua. Kontzertua data zehatzik gabe atzeratu da eta dagoeneko txartela erosita zutenek txartel hori bera erabili ahal izango dute kontzertua berriro programatzen denean. Data berrian joaterik ez dutenek aukera izango dute ordaindutako dirua berreskuratzeko kultur etxean.

Udala etengabe dago harremanetan osasun-agintariekin eta gertuko segimendua egiten dio egoeraren eboluzioari, momentu bakoitzean neurri egokienak hartzeko. ■■■



izeta
SAGARDOTEGIA

*Gure ateak zabalik daude,
zatoz gure sagardoa dastatzera*

URDANETA BIDEA, AIA.
ERRESERBAK: 943-13 16 93 · SAGARDO ESKARIAK: 678 00 34 83
WWW.IZETA.ES/HOME · @IZETASAGARDOTEGIA

Puntua jarrita

Aritz Lizaso.
(Doinua: Gizona da zoroa)

1

Aurten izango al da Aiako festarik?

horrei erantzuterik ez dago oraindik bakuna heldu da ta bada esperantzarik herri afayantzako badet gogoa nik

2

Herri afaya beti nahiz izan berdina menua goxoa ta gero arin-arina hurrengo egunean ze buruko mina eta mus txapelketan hori da ezina.

3

Pelotako finalak ta bertso saia San Donato eguna zeinen konpletua ia aste osoan ze festa girua!! Aiako festa degu Iruñean moukua

4

Umeen egunean ze festa handia jolasak, kalejira ta txokolatia kanpoko zein herriko plaza ze betia!! eguna bukatzeko EGANen tartia

5

DJ ta kontzertuak gauetan errege fandango arin-arin nik nahio halere dantza eginez festak gorputzai mesede hau erakutsi behar gure umeei ere

6

Toka, boloak eta tiro pitxon dela zeinek irabaziko aurtengo txapela ea bukatzen degun birusakin bela eta Aiako Festak ospa daitezela

Hurrengo bertsolaria:

Gontzal Aldai.

Puntua:

Boulevarda dirudi Paota bidiak.

Hasi Bertsotan atalean puntuka ariko dira bertsolariak. Oraingoan Aritz Lizasori jarri dio puntua Ainara Saizarrek: "Aurten izango al da Aiako festarik?". Hurrengoari ere jarri dio puntua.



Etxetik ohiturak sortzen

irakurri
euskaraz

KARKARA

EUROAK
2024-2025
BATEA ETA
BENTZIA
AT EGINDA

UROLAKO KOMUNIKAZIO TALDEA KOOP. ELK.

B

K

erlo



UH

huti

ZH

Gipuzkoako Foru Aldundiaren kultur bonoei esker, batu **KARKARA**ren proiektura eta 12 euroko deskontua izango duzu aurtengo kuotan.